

Arrasate

UPRESS

1999ko
abenduak 3
474. zenb.

Baserria turismoaz uztartuz

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA GAIA: AKORDEOI LEHIAKETAK
EUREN IKUSPUNTUTIK: JUAN RAMON GARAI • KIROL GAIA: IÑURRATEGI ANAIK



VERSACE
JEANS COUTURE

MOSCHINO®

PAUL SMITH
SUIT

DRIES VAN NOTEN

Jean Paul
GAULTIER

SCOOTER
PARIS

ANTONIO MIRO


Vivienne Westwood
KNITWEAR

YOHJI YAMAMOTO



u d a l a i t z

A R R A S A T E

erdiko kale 42 • arrasate • tel.: 943 77 00 68

*Gabonetan
eskaintza bereziak!*



Hurrengo batera arte...

Atseden bat hartzeko unea heldu zait. Orrialde honetako noizbehinkako mamua izateari utzi behar diot momentuz. Urte asko igaro dira Arantzazu Loidik atal honetan idaztea proposatu zidanetik. Aurretik ere zerbait ikusi omen zuen Iñaki Mendigurenek nik idatzitakoan. Ezuste eta ilusioaren arteko zerbait bizi izan nuen bat batean. 1992. urtea zen, Arrasaten bigarren belaunaldi okupa eta asanblearioak, hau da, Ospitaleko Gaztetxeak odol bizi-bizia zeukan eta bertako partaideok amets zein esperientzia egarri itzela geneukan.



Iker Barandiaran

Honekin lotuta, proposamena jaso bezain laster goitizen bat aukeratu nuen, bazterrak pixka bat nahasteko asmo gogotsua bainean.

Adin guztietako jendeak irakurtzen duen hedabidea izateak ere erakarri ninduen

Aldizkariaren ildo zehatz batzuegatik, ez zen hala sinatzea posible izan, salbuespenen bat egin zuten arren —ez zen nire kasua izan, noski—. Nolabaiteko kontsolamendua (ge)neukan hala ere: idatzia izenpetuta egonez gero, ez zen inolako zentsurarik ezarriko.

Makina bat urtez, bi hilabetetik behin-edo idatzi behar izan nuen. Zuzendaria aldatu eta hor jarraitzen nuen nik. Izen-abizenak eta gaiaren inguruko marrakzi batzuk agertzetik, “argazki”-ra ere pasatu ginen. Aurretik aski ezaguna banintzen ere, orduetik aurrera adibidez autostopean jarri eta auto bat gelditzean, “nik zu nonbait ikusi zaitut” eta antzekoak entzutea nahiko ohikoa bilakatu zen. Beste batzuek argazkia aldatzeko, etab... Denborarekin, “erreformak” heldu eta gure iritziei “pisu”

gehiago” ematearren —hain gara astunak— hilerokoa ezarri ziguten.

Hasieratik argi neukan zentsurarik gabeko hutsune batek merezi zuela. Adin guztietako jendeak irakurtzen duen hedabidea izateak ere erakarri ninduen. Agian haien(gan) erreazio gehiago lor daiteke eta behintzat etxetik mugitu gabe (eta agian nahi gabe) gure iritzia mutur parean daukate halabeharrez. Izan ere, neure zenbait idatzik ez dute bere lekua merezi izan. Ez tarte honek halako baliorik duelako, baizik eta hainbatean inspirazio egokirik gabe, ez diodalako probetxu askorik atera. Arrasatek, (onerako edo txarrerako) herritxo bat baino zerbait gehiago bada ere, ez du berez hainbeste ematen eta erraza izan daiteke gaiak errepikatzea.

Hala ere, ez naiz damutzen. Gehienetan bezpera inguruan presaka idatzi baditut ere —hau ere bai—, batzuetan zeharo gustura gelditu izan naiz eta plazer txiki horiek ez dizkit inork kendu. Gutxi batzuen aldiko irakurzaletasuna ere piztu dut nolabait, eta ez da gutxi. ■

“Etorkizunean gure asmoa eskolatik ateratzen den ikaslea eleanitza izatea da, hau da, hiru hizkuntza menpera ditzala: euskara, gaztelania eta ingelesa”

Jabier Retegi

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. Kazetariak: Manjo Deogracias, Ubane Madera, Mairer Osa. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrolabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Administrazioa: Maite Uriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemakia: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frantziako Kontzerfatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriate).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta initzen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

Arrasateko Udaleren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

3.096

Ikasle ari da Mondragon Unibertsitatean ikasten.

Eskola Politeknikoan, Enpresa Zientzien Fakultatean eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ari dira. Hauetatik, 2.199 gipuzkoarrak dira; 518 bizkaitarrak; 328 arabarrak eta 51 nafarrak.

ITURRI ONETIK

“Putz” aldizkari berria

Arrasatear talde batek aldizkari berria kaleratuko du datorren astean. Durangoko Euskal Liburu eta Diskoien Azokarako prest izango da, eta salgai.

Proiektuaren sortzaileak sei mondragoetar dira: Iker Barandiaran, Diego Martiartu, Joxe Otadiu, Jon Ruiz de Zarate, Balentin Tramon eta Ramon Ugalde. Aldizkari berriak kultura eta musika landuko ditu batik bat. Taldekide batek zioen moduan, “Euskal Herriko bazterrak nahasteko asmoarekin irtengo gara”.

Bi hilabetez behin kaleratuko da *Putz*, hogeita hamar orrialdetik gora izango ditu eta 400 pta kostako da. Euskal Herriko liburudendetan erosi ahal izango da.

Honen inguruko berri gehiago nahi duenak, benduaren 3tik 8ra Durangon izango ditu erantzunak. Zorte on!

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 3**
 • Morales, San Andres
- Larunbata, 4**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 5**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Astelehena, 6**
 • Korkuera, Musakola
- Astearte, 7**
 • Irizar, Erguin
- Asteazkena, 8**
 • Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 9**
 • Zabala, Zarugalde

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualetoia 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
 • Fax zenbakia 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

AITA MENNIKO LANGILEAK MOBILIZAZIOETAN

Patronalaren jarrera ezkorragi eraginda, greba eta mobilizazioetan hasiko dira berriro ere Aita Menniko langileak.

Euren lan baldintza jasanezinek beharturik, ondorengo erabaki dugu biltzarrean elkartuta:

Oraindik, ez dugu enpresaren inolako eskaintzarik jaso.

Enpresaren jarrera ezkorra eta intransijentea dela uste dute langileek, langileon eskaerak etengabe mespresatzen dituelarik.

Enpresak erantzukizuna bere gain hartu behar du. Patronalaren jarrera ezkor honen aurrean, langileok, azaroaren 10ean egindako batzarrean, azaroaren 11, 12 eta 15ean kontzentrazioak egitea erabaki genuen. Kontzentrazio hauek lan orduetatik kanpo egin genituen, 14:45etik 15:15era.

Enpresaren aldetik jarraia ez denez, azaroaren 29tik aurrera ordu erdiko lanuzteak egingo ditugu. Lanuzte horiek 14:30etik 15:00etara (goizeko txandan) eta 15:00etatik 15:30era (arratsaldeko txandan) izango dira.

Langileon asmoa negoziaketan eta mobilizazioekin zuzenean berri komunikabideoi jakitera ematea da.

Aita Menniko Langile Asanblada

ESTEBAN DE GARIBAI: LAU MENDE

Udazken honetan betetzen dira 400 urte Esteban de Garibai eta Zamalloa hil zela. 1533. urtean jaiotako mondragoetar hau alkate izan zen gure herrian, baina ez da horregatik ezaguna, historia-laria eta errege kronista izateagatik baizik. Lan asko idatzi zituen. Nagusia "Compendio Historial" izenekoa izan zen; izenburuan datorrenez, Espainiako erreinuen historia kontatzen da bertan.

Bestalde, Garibairen testuetan bere jaioterriko ezagari ugari agertzen da: euskarazko antzinako eresiak (bando-gerrei buruzko kantak, garai hartan jendearen oroitzapenetan oraindik bizirik zeudenak), erretrauak eta herri-esaerak, elegiak. Dokumentu garrantzitsuak orduko euskarari eta ohiturei buruz jakiteko.

Arrasate eskerronez dago Garibairengana. Horren erakusle da, adibidez, Maalako biribiletik gertu dagoen oroitaria (nahiz eta bertan lehen "Mondragón a Garibai" esaldia jartzen zuen eta gaur "Garibai" hitza besterik geratzen ez den).

A.E.O.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer iruditzen zaizu ETAk hartutako erabakia?

ETAk bertan behera laga zuen su etena joan den igandean




Ainhoa Urrutia
(28 urte)
Langilea

Gogorra da lehengo egoerara itzultzea, baina Espainiak eta Frantziak berean segitu dute eta hor dago koska.



Ana Fernandez
(29 urte)
Langilea

Hasiera batean ez zait ondo iruditzen, tregua eta bake epe bat amaitzen delako.



Joxe Aranzabal
(77 urte)
Erretiratua

Nire ustez, ordua da bakea eraikitzeko.



Santiago Martinez
(62 urte)
Erretiratua

Gauza bat edo bestea, antzera iruditzen zait. Eurek jakingo dute zertan ari diren, batzuek zein besteek.



Mikel Briñas
(19 urte)
Langilea

Eurek ikusiko dute zer eginguten duten.



Isidro Gonzalez
(85 urte)
Erretiratua

Ezer lortzeko baldin bada... Baina hilketak ez dira onak inorentzat.



Consuelo Larreina
(57 urte)
Etxekoandrea

Ondo, hau da, eurek ere ez dute bete beharrekoa bete, beraz zerbait egin beharra zegoen. Gainera, erabakia agerikoa zen.



Nagore Unamunzaga
(21 urte)
Langilea

Uste dut pena dela, baina zerbaitegatik egin dute. Ez da beste barik egin, bazen nahikoa motibo.

Sagardotegia

ITURRIETA

Aragoa auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Ipek Denda

Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

3

ostirala

■ **ZINEA**

De ladrón a policía, Alai zineman, 19:00 eta 22:00.

■ **SOINU KONTZERTUA**

Dragan Vasiljevic, iazko Arrasate Hiria lehiaketako irabazleak kontzertua eskainiko du San Joan Bataiatzailearen parrokiari. 20:00.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Sacred Sin death metal talde portugaldarra eta Anger talde arrasatearra arituko dira gaztetxean. 22:30.

4

larunbata

■ **ZINEA**

De ladrón a policía, 17:00, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Santanderko Cementerio Show eta Jan talde bizkaitarrak arituko dira gaztetxean. 22:00.

5

igandea

■ **ZINEA**

De ladrón a policía, 17:00, 19:30, eta 22:00, Alai zineman.

6

astelehena

■ **ZINEA**

Mi marciano favorito, 17:00etan eta *The Blair witch project*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ **BUNBURY JAM ARETOAN**

Enrique Bumbury, kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. 22:00. 2.300 pta.

San Nikolas eguna

Abenduaren 6an, astelehenean, Boloboloa izango dute herriko neska-mutikoeek 12:00etan, herriko plazan.



7

asteartea

■ **ZINEA**

Mi marciano favorito, 17:00etan eta *The Blair witch project*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

“Jokin Zaitegi” oroitzuz lehiaketa



Euskara maila garaietara jaso behar delakoan, klasikoekin lanak itzuli eta argitaratu zituen. 1946an “Sopokelen antzerkiak I” liburu-bilduma kaleratu zuen Mexikon. 1962tik aurrera, filosofo handi baten elkarrizketak euskaratu eta bost liburu osatu zituen. Zein da filosofo hori?

- Platon
- Kant
- Aristotele

Aukeratu erantzun zuzena eta bidali, zure datuekin, abenduaren 15a baino lehen AEDra (Pablo Uranga kalea 6 behe) edo Arrasate Pressera (Otalora lizentziatua, 31). Jasotako txartel guztien artean “Euskal Herria eta bere herrialde historikoen kondaira” mapa eta liburua zotz egingo dira.



Izen-abizenak:
 Helbidea:
 Teli:
 Erantzun zuzena:

8

asteazkena

■ ZINEA

Mi marciano favorito, 17:00etan eta *The Blair witch project*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Goizeko 11:30etik aurrera hasiko da Arrasate Akordeoi Lehiaketaren azken ekitaldia, Amaia antzokian.

■ **PARROKIA ZABALIK**
Hemendik eta Gabonak bitartean, parrokia zabalik egongo da goizero. 09:30etik 12:00etara. Otoitz egin nahi dutenek musika izango dute lagun.

■ **MARGO ERAKUSKETA**
Eluska Zabalo margolari arrasatearrak Harresi aretoan jarriko ditu bere lanak, lehen aldiz. Abenduaren 3tik 19ra bitartean egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian.

■ **TXIKILANDIA 2000**
Txikilandia 2000ko begirale izan nahi baduzu, Txatxilipurdira jo. Pablo Uranga kalea, 4 behea. Tel.: 943 79 54 46 eta 943 77 17 39.

■ **GABONETAKO AZOKA**
Gabonetako IV. azoka antolatu du AGAKOk. Bigarren eskuko gauzak erosteko aukera eskaintzen du azokak. Helburua Gabonetako kontsumismo izel eta eroa salatzea da, gauza zaharrak birziklatea bultzatuz. Arropa, disko, liburu, traste zahar eta antzekoak dituenak gaztetxera eraman ditzake, azokan salgai jartzeko. Batzen den dirua "bailaran egingo diren sarraskien aurkako taldeentzat" dela adierazi dute AGAKOkoek.

■ **ESKUBALOI IKASTAROA**
Debagoieneko eskubaloi jokalaria eta entrenatzaileei zuzenduta, Deba Bailarako Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuak eskubaloi ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an izango da, Bergarako Labegaraietako kiroldegian, 19:00etan. Irakaslea Xabier Mikel Rekondo, Portland Sant Antonio taldeko jokalaria izango da. Argibideak, 943 77 91 67.

■ **PILOTA IKASTAROA**
Debagoieneko pilotari eta entrenatzaileei zuzenduta, Deba Bailarako Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuak pilota ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an izango da, Elgetako udal pilotalekuan. Aitor Elkoro eta Aritz Berraondo pilotari profesionalak arituko dira ikastaroa ematen. Argibideak: 943 77 91 67.

■ **FUTBOL IKASTAROA**
Debagoieneko futbolariei zuzenduta, Deba Bailarako Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuak futbol ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an izango da, Eibarko Unbe futbolariei zuzenduta, 19:00etan. Ikastaroa Aitor Zinkunegi eta Ina Oiarzabal, Aurrera de Ondarroa taldeko entrenatzaileek eskainiko dute.

■ **PSIKOESTIMULAZIOA**
"Psikoestimulazioa demenzietan" ikastaroa antolatu du ICTE zentroak. Abenduaren 13an hasi eta 17a arte iraungo du. Argibideak 943 771 699 zerbakiak.

■ **SORMEN LANTEGIA**
Arantxa Arriaga terapeuta eta Antonio Lopez de Lerma psikologoak sormen lantegia eskainiko dute Aretxabaletan, abenduaren 11n eta 12an. Argibideak: 943 13 29 76.

■ **LAN ORIENTABIDEA**
"Lan orientabide ikastaroa" antolatu du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak. Abendutik martxora bitartean izango da IMIn. Izen ematea azaroaren 30a arte dago zabalik. Argibideak: 943 79 41 39.

■ **LITERATURA LEHIAKETA**
XIII. Arrasate lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. AEDk antolatzen duen lehiaketa honek atal ugari ditu. Argibideak AEDn jasoko dituzue.

9

osteguna

■ ZINEA

The Blair witch project, Alai zineman, 19:00 eta 21:30.

NAROKI
LIBURUDENDA

Portzelanazko panpinak
Jostailuak
Era guztietako opariak

NAROKI
BITXITEGIA

Zure gabonetako
opariak hemen
aurkituko dituzu

Nekazal Turismo Elkarte

180 baserri baino gehiago ostatu emateko prest.



Kursaala, Zurriola etorbidea, z/g
20002 • DONOSTIA
Tel.: 902 13 00 31

www.nekatur.net
agroturismo@nekatur.net

USTEAK USTE

Berri txarrak


Milaka eta milaka euskaldunek bezala, igande goizean jakin nuen, irratian entzunda, ETAK bukatutzat ematen zuela su etena. "Jo-der!, berriro itzuli behar gara lehengora?", pentsatu nuen.

Neuri ere tristura handia sartu zitzaidan. Porrot egin dugu. Denok: politikoeak, herritarrok... denok. Epe motzera jokatu dugu, ikuspegi motzarekin. Gehiegitan begiratu dugu atzera, aurrerapausorik ez emateko.

Ataka gaiztoan gaude orain: betikoak zaunka, lehengo egoera ustelera itzuli nahian. Alderdi abertzaleak noraezean, elkarri begira zain, egoera honetatik probetxurik handiena nork aterako ote duen bijilatzen. Eta albo batean ETA, mehatxakor, kontuan hartu barik inportantea ez dela helburuan kide izatea bakarrik, baizik eta helburuak lortzeko baliabideak ere garrantzitsuak direla. Eta herri honetako gehiengo handiak ez duela herrigintza indarkeriarekin nahastu nahi.

Ez etsi. Eutsi. Bakeak merezi du eta.

Joxe Aranzabal



Bazterketa soziala

* Juan Ramon Garai

Euskal Herriko beste leku batzuekin alderatuz gero, gure eskualdeak langabezia eta pobrezia maila txikiena duela esaten da.

INEMen izena emandakoen datuetan erreparatzen badugu, berehala erreparatuko dugu langabezia ez dela 500 langabetura heltzen.

Baina benetako langabezia handiagoa da, langabe guztiek ez baitute INEMen izena ematen. Horregatik Eustatek %45 igotzen du langabeen kopurua.

Hona hemen INEMek jakinarazi ez dituen bi datu interesgarri:

1- Arrasateko zenbat langabek kobratzen duten desentplegu-saria.

2- Langabetu bakoitzak zenbat kobratzen duen.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuen arabera, langabeen %25ek baino gutxiagok jasotzen dute langabezia, hilerok batez beste 100.000 pta inguru.

Dena dela, hori ez da aztertu beharreko datu bakarra. Arrasaten azterlan

bat egiteko dago pentsiodunen batez besteko diru-sarrerak zenbatekoak diren jakiteko. Eustaten arabera, 1997an Gipuzkoako batez besteko pentsioa 86.000 pezetakoa zen hilean; datorren urtean, alargunek 42.080-59.990 pta kobratuko dute, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino gutxiago, alegia.

Lan merkatuko mila langiletik gora ebentualak dira eta horietako asko, lanpostu finakoak betetzeko eta eskulana malgutzeko erabiltzen dira.

Enpresa askoko langile azpikontratatuak beste enpresetako langileen erdia edo gutxiago kobratzen dute.

Enpresa askotan aparte-

“
Oinarrizko errenta posible da. Badago horretarako nahikoa diru
”

ko ordu ugari sartzen da. Estatu espainiarreko Hazienda Ministerioaren arabera, Gipuzkoan langile finkoek batez beste 1.675 ordu sartzen zuten 1994an eta 1999an berriz 1.794ra iritsi dira. Lan hori banatzeko, aparteko orduak kentzeko, nahikoa da elkartasuna praktikan jartzea.

Ezagutu behar genukeen beste datua beren etxea eraiki nahi duten eta baliabide faltagatik ezin duten gazteei buruzkoa da, faktore garrantzitsua probrezia maila zehazterakotan. Arrasaten ere badira ezberdintasunak, diskriminazioak, pobrezia eta bazterketa.

Baina hori ez da gertatzen baliabide edo aberastasunik ez dagoelako, horiek gaizki banatuta daudelako baizik.

Pertsona guztiok dugu lan duin bat izateko edo oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea. Oinarrizko errenta ez da limosna; ez da eskatzen gutxi dutenekin eskuzabal izatea. Bizitza duina izateko eskubidea aldarrikatzen da, langabeziaren eta bazterketaren bidez batzuei kendu egin zaie eta.

Gizarte eredu berria proposatzen ari gara horrekin.

Oinarrizko errenta posible da. Badago horretarako nahikoa diru. Baina, batez ere, komenigarria eta beharrezkoa da.

Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek zeresan handia dute eta Arrasateko Udalak ere bai. Datorren urteko aurrekontuetan badugu horretan zer egina.

* Zinegotzia

Pando ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxa: 943 79 79 70

Txitxinpe
Berezitasunak Kazuelatxoak Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik Betara.
Tel.: 943 79 26 99

ESKORIATZA

1 Olioa birziklatzen


Aste honetan eta hurrengoan, Eskoriatzako etxe guztietatik bi lagun pasatuko dira erabilitako olioia batu eta birziklatzera bidaltzeko. Etxeetako olioia batzen den bigarren aldia da hauxe. Izan ere, olioia batu eta birziklatzeko egitasmo hau abian jarri denetik, hilabete eskas pasa da.

Sortu berri den udaleko Ingurugiro batzordearen ekimena izan da. Ez da askotan entzundakoa, gainera. Izan ere, orain arte enpresetan soilik batu izan dira erabilitako olioak. Ikusten denez, beraz, mota honetako egitasmo bat erabiltzen aurrenak izan dira eskoriatzarrak. Pozik daude, gainera, orain arte lortutako emaitzekin. Izan ere, oraindik etxeetan behin bakarrik pasa diren arren, dagoeneko 100 litro olio batu dute. Kopuru nahiko handia da, Eskoriatzak 4.000 biztanle inguru besterik ez dituela jakinda. Batutako olioia Donostiako Ekogras enpresara eramango da, han birziklatu eta bestelako erabileretarako saltzeko.

ANTZUOLA

2 Zaharkinak proiektua

Antzuolako ondare etnografikoa ezagutzera emateko proiektu berri bat jarriko da abian abenduaren erdialdean. Zaharkinak izena hartu du egitasmoak eta Antzuolako baserrietan ikusi eta batutako tres-



nen fitxak egingo dira. Besteak beste, baserrietan lurra lantzeko eta abeltzantzarako erabilitako tresnak, altzariak, erlijio kutsuko gauzak, garraio eta karrerakoak, garbitasunerako erabiltzen zirenak, argazkiak eta abar jasoko dira.

Tresna hauek batzeaz gain, garbitu ere egingo dira. Bukeraren erakusketa bat egingo da batutako guztiarekin, maiatza aldera. Lan guztia bukatutakoan, baserriar bakoitzari hartutako tresna bueltatuko zaio.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako proiektua da hau eta Antzuolako Udaleko eta Aranzadi elkarteko

kideek garatuko dute.

Berezitasun moduan, proiektu honen barruan gazteen parte hartzea bultzatuko dela esan behar da. Transmisioari dagokionez, eten handia dago zaharren eta gazteen artean eta horixe gutxitzeko ahalegina egin nahi da.

OÑATI

3 Egoitzako langileak haserre

San Martin egoitzako langileak kexu dira lanerako duten egoera eskasa dela eta. Langileen kontrataziorako ostalaritzako arauak erabiltzen

omen dira egoitzan eta ez luke hala izan behar. Izan ere, egoitzan bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dira eta hori ez da jasotzen lan ordu kopuruan, ez eta soldatan ere. Horregatik guztiatik, idatzi bat bidali dute egoitzako zuzendaritza batzordera. Orain duten egoera aldatzea da langileen eskaera nagusia.

BERGARA

4 Ordubete Raulen alde

Raul Luqueren alde lan egiten ari den taldeak ordu beteko lan saria eskatzen ari dira herrian. Honekin lotuta, orain langile autonomoei eta Bergararik kanpo norberaren kontura lan egiten ari direnei egin diete eskaria.

Izan ere, orain arte enpresaz-enpresa joan dira asmo horren berri emanez eta aipatutako bi langile talde hauek kanpaina honetatik kanpo geratu dira.

ELGETA

5 Entziklopediak salgai

Herriko liburutegiak eskaintza berezia egin die herritarrei: lau entziklopedia erdi prezioan. Kontua da, bi aldiz jaso dutela entziklopedia bakoitza liburutegian.

Espainiar literatura, sukaldaritza, Retanaren hiztegia eta Euskaldunak izeneko entziklopediak dira eskaintzen direnak. Interesa dutenek, abenduaren 17a baino lehen joan beharko dute liburutegira.

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • ARRASATE Tel.: 943 79 52 50

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Diskoaren aurkezpena.

Ostiralean aurkeztu zuen *Bad f-Line* taldeak Arrasaten bere bigarren diskoa. Disko hori otsailean atera zuten, eta 10 kantua jasotzen ditu, hiruzpalau minutuko iraupena dutenak. CD berean bideo-klipa ere sartu dute. Datorren apirilera hirugarren diskoa kaleratuko dute Desobediencia Madrilgo disketearekin.

■ Arizmendiariaren oroimenez

Pasa den astelehenean On Jose Maria Arizmendiari hil zeneko 23. urteurrena ospatu zen. Oroimen moduan,


urtero egiten den legez, Arizmendiari topaketak egin ziren pasa den ostegunean, Humanitate Fakultatearen inaugurazioarekin batera, hitzaldi bat izan zen topaketa hauen barruan, Rodolfo Cardenal josulagunaren eskutik. Horrez gain, Ikerlaneko presidenteak enpresa honen izenean omenaldia eskaini zion On Jose Mariari. Jende ugari izan zen ekitaldian. Fakultate berriko hitzaldi aretoa leporaino bete zen.

■ Funtzionario gehiago

Datorren urtera begira Arrasateko Udalak bere langile egitura aldatu egingo du.

Hainbat batzordetan langile beharra dagoela ikusi eta, ondorioz, orain dauden lanpostuak behar berri horietara egokitzea erabaki du udalak. Honen ondorioz, udaleko funtzionario kopurua gehitu egingo da. 123 izate-tik, 2000. urtean 140 izatera pasatuko dira. Era berean, behar berri hauetara egokitzeko, 12 lanpostu berri sortuko dira. Hauetatik 6 funtzionarioak izango dira eta beste 6 aldi baterakoak.

Horrez gain, orain udalean 28 pertsona ari dira aldi baterako lanean. Datorren urtean, hauetatik 11 funtzionario egingo dituzte.



■ Gorroño goitiari omenaldia

Lan Kooperatiben Federazioak omenaldia egin zien Bilbon federazioa sortu zutenei. Hauen artean, Alfonso Gorroño goitia omen-du zuten, federazioak izan zuen lehen presidentea.

Enpresa arloko jende ezagun asko gerturatu zen ekitaldira. Hainbat hitzaldi eta bazkaria egin zuten omenaldia borobiltzeko.

Zorionak Alfonso Gorroño goitari.

“ Askotan idatzi izan dut treguak euskaldun askoren esperantza piztu zuela. Alde batetik, askatasunean eraikitako bakean egin daitekeelako aurrera. Bestetik, postura mugiezinez erabat sailkatuta zeudenak, ulertu agian ez, baina konfliktuaren irtenbide batera bideratzeko prest agertuko zirela uste nuelako. ETaren su etena bertan behera gelditu dela baieztatu balitz, euskaldunok izango gara galtzaileak”.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Diario Vasco

1999ko azaroaren 29an

My ile apaindegia

Alfonso X Jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan) • Tel.: 943 79 79 65

- Gizon eta emakumezkoentzako ile apaindegia
- Mozketa eta kolore joera berriak
- Txanda aurrez eskatu

Ordutegia:

- Asteleheneetik ostiralera:
09:30 - 12:00 eta 14:00 - 19:30
- Larunbatetan:
08:30 - 13:30



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Ikastetxeetarako udal ordezkari berriak izendatu dira

Ikastetxeetan Eskola Kontseiluetarako udal ordezkari berriak izendatu berri dira. Mondragoen dauden hamar ikastetxeetarako ordezkari

berriak izendatu da. Azaroari dagokion ohiko osoko bilkuran hartu da erabakia, zinegotzien gehiengoarekin.

Kutxarako ere udal ordezkari berria izendatu da. Orain arte Paco Garcia sozialistak bete du kargua.

Aste honetako erabakiaren ondoren, Ino Galparsorok,

lehenengo alkateordeak, hartuko du lan hori.

Modu honetan geratuko da, beraz, Ikastetxeetarako udal ordezkariak:




Haritz Azkarraga
EH
Musakolako Herri Eskola.



Jose Ramon Arkauz
EH
San Frantzisko Xabier Ikastola




Larraitx Trojaola
EH
Almen ikastola



Xabier Zubizarreta
EH
Escola Politeknikoa



Amaia Larrañaga
EAJ-EA
La Merced ikastetxea




JA Barriocanal
EAJ-EA
San Viator Ikastola



M. Angeles Inurritegi
EAJ-EA
Erguin Herri Eskola



Itsaso Garai
EAJ-EA
Umezaintza



Ismael Gonzalez
PSOE-EE
San Andres Herri Eskola eta Institutua

Seber Altube plaza handitzeko aurreneko pausoak

Arrasateko Udalak Seber Altube plazan dagoen Banco Guipuzcoanoren atzeko lursaila erosiko du. Erositako lursail horren barruan, banketxearen lorategia eta ortua sartzen dira, guztira ia 180 metro karratuko lursaila. 13 milioi eta erdi pezeta ordainduko ditu udalak trukean. Lursaila Seber Altube plazan egin behar diren urbanizazio lanetarako erabiliko da.

Izan ere, udalak harresitik kanpoko eremua oinezkoen erabilerarako egokitu nahi du. Maisu Aranotik hasi eta Gazteluondorainoko guneak



eraldatuta geratuko dira. Besteak beste, plataforma bakarra ezarriko da gune osoan, oztopo guztiak ezabatuz.

Hala ere, oraindik ez dago ezarrita ez lan hauek egiten hasteko egunik, ezta harre-

sitik kanpoko egitasmoaren bestelako lanak egiten hastekorik ere. Baina lanak hasten direnetik 18 hilabeteko epea ezarri da bukatzeko eta 278 milioi pezeta inbertitzea erabaki du udalak.

Markulete Industrialderako

Arrasateko Udalak, Markuleten dagoen 16.151 metro karratuko lursaila Aretxabaletako Industrialdeari salduko dio 229.014.000 milioi pezetaren truke.

Arrasateko Udalak Aretxabaletako Industrialdearekin hitzarmen bat sinatu zuen iazko abenduan.

Hitzarmen hori Mondragoeko industria garatzeko asmoarekin sinatu zen eta, dirudienez, ari dira honen inguruan lanean.

HIESari ihes egin behar oraindik ere

Abenduaren lehen HIESaren Nazioarteko Eguna izan zela eta, gai horixe jorratu zen Mondragoen eta inguruetan. Bestetan baino gutxiago, baina asteazkenean ere lazo gorriak agertu ziren herriko kaleetan. Izan ere, azken urteotan gauza ugari aldatu dira gaixotasun honen inguruan. HIES-ak jota hil diren pertsona kopurua jaitsi eginda eta hori kalean ere igartzen da.

OSAKIDETZA

Osakidetzak emandako datuen arabera, aurten diagnostikaturako 200 kasuetatik 80 baka-rik hil dira. Iaz baino gutxiago. Iaz diagnostikatutako 237



Domi Korta.

gaixoetatik 103 hil ziren. Mondragoen 40 laguni diagnostikatu zaie HIESa, %75 gizonetakoak. Kasu gehienetan, transmisio bidea xiringa izan da.

EAE-N

Gaixoen %65 bizkaitarrak

dira, %26 gipuzkoarrak eta %6 arabarrak. Sexuen arabera, EAEko HIESdunen artean %74 gizonetakoak dira. Gainerakoak, emakumezkoak. Oro har, 1984. urtetik hona, HIES-az kutsatutako ia 4.356 pertsona diagnostikatu dira EAEn. Hildakoak 2.492 izan dira.

HIES EKIMENA

Elkarte honek beste modu batean ikusten ditu gauzak. Egia da gero eta jende gutxiago hiltzen dituela HIESak eta gaixotasun honen aurkako medikamentuak ere geroz eta hobeak direla. HIES Ekimenak dio, hala ere, medikamentu hauen ondorioz gero eta gai-

xo gehiago hiltzen ari dela.

Bestetik, hauen esanetan, gizartea lasaitu egin da gaixotasun honen aurrean. Prebentzioa ez da behar bezala zaintzen eta horren ondorioz, gaixotasuna gero eta gehiago sexu harremanen bidez ari da transmititzen. Birusak kutsatutako neskek ere gero eta gehiago dira. Hego Euskal Herrian, beti ere HIES Ekimenaren arabera, 8.500 pertsona daude HIESak kutsatuta; 250 pertsonako bat, beraz. Hala ere, erakundeek orain arte ematen zizkieten diru laguntza gehienak kendu egin dizkiete HIESaren aurkako elkartei.

Kolonbiari laguntza eman nahian

“Arrasateko Artea Hirugarren Munduari lagunduaz” izenarekin aurkeztu duen Harreman taldeak aurtengo merkatu txikia, abenduaren 3an irekiko dena, Frantzikotarren lokalean. Lortzen den diruarekin Kolonbiako San Klemente proiektuari laguntza eman nahi zaio. Goikobalu abesbatzak kontzertu bat emango du San

Frantzisko elizan.

Proiektua Kolonbiako Andeetan dago, Guatika herrian. Sebastian Uribe txerria aretxabaletarra eta San Klemente institutuko guraso elkarteak dira proiektuaren arduradunak. Eskola lantegiak eraiki nahi dira han base-rritar gazteentzat. Proiektuak 22 milioiko kostua izango du.

Presoak eta bakea

Euskal preso politikoak eginen diren gose grebari elkartasuna erakusteko eta amnistia eskatzeko, kale agerraldia egin zen asteazkenean Seber Altube plazan. 100 bat lagun elkartu ziren gose greban deauden presoek elkartasuna adierazteko.

Bada beste deialdi bat, Juan Jose Ibarretxe lehenda-

kariak zabalduetako, ostiral eguerdian egin dena, bake prozesuari jarraipena emateko, indarkeriarik gabe.

Larunbaterako iragarrita dagoen Bilboko kale agerraldia joateko autobusa antolatuta da, bestalde. Garibaitik aterako da, arratsaldeko 16:00etan. Sarrerak, Irati tabernan daude salgai.

Gazte Foruma

EHuko irakasle kaleratuak Eskola Politeknikora etorri ziren asteartean Jarrai erakundeak antolatutako Gazte Forumaren barruan. Jose Luis Herrero eta Jose

Ramon Etxeberria irakasleek, unibertsitatean egin duten 11 urteko borrokaren gaineko liburua aurkeztu zuten eskolako hitzaldiare-
toan.



Aita Mennin berriro borroka

Aita Menniko langileak berriro ere kalera atera dira aste honetan, bi egunez. Lan hitzarmenaren alde eginen ari diren protestarekin

segitu dute, beraz.

Datorren astera begira, berriz, ostegunean erabakiko dute mobilizazioekin jarraituko duten edo ez.



Arrasateko alderdi politikoak kezkatuak ETArekin komunikatuarekin


“1998ko irailaren 18an indarrean jarri genuen ekintzen etendaldia bertan behera dago jadanik. 1999ko abenduaren 3tik aurrera Euskadi Ta Askatasunaren esku dago talde operatiboei ekintzak noiz egiten hasi jakinaraztea”.

Horrela bukatzen zen ETAk igande goizean kalera-tu zuen komunikatua. Hamalau hilabete iraun duen su-etena amaitutzat jotzen du, beraz, erakunde armatuak eta datoren ostiraletik aurrera ETArekin komandoek aginduak jaso ditzaketela dio, atentatuak edo bestelako ekintzak egiteko.

Erabaki honek era guztietako erantzunak eragin ditu euskal gizartean. Arrasaten ere, alderdi gehienak ardurata agertu dira egoera berriaren aurrean.

Ezustekoa handia izan zen eta politikoak berehala hasi ziren hiriburuetara deitzen, buruzagien iritzia jasotzeko. Arrasalderako, gehienek argi zuten esan beharrekoa.

Arrasateko alkatea, adi-



bidez, Donostian izan zen astelehenean. Goizean Ur Partzuergoaren bilera batean eta arratsaldean HBren Mahai Nazionalean. Asteartera arte ez genuen modurik izan, beraz, bere iritzia jasotzeko.

Ikastetxeetan ere zurrumbilotu egin dira gauzak. Alde batetik, presoen aldeko ekintzak antolatu dira, baina baita ETArekin kontrako geldialdiak

ere. Ostiralerako, berriz, indarrean dago Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren deialdia, Arrasateko kasuan herriko plazan, bakearen aldeko agerraldia egiteko.

Hala ere, politikoak ez dira bakarrak izan iritziak ematen. Antonio Cancelo MCCko lehendakariak garbi utzi zuen ETArekin komunikatuak oso triste utzi zuela:

“Denok egin behar dugu lan gizartearen egoera hobetzeko eta, alde horretatik, indarke-riak ez du inolako lekurik”.

Jose Mari Astigarraga parrokoa itxaropentsu agertu zen, izan ere, “ETAre gogorra egin behar zaio indarke-riari itzultzea. Baina gauza bat ez diot onartzen ETAre: aske eta heldua naiz eta ez dut ETAre- ren tutela beharrik”.

Mertxe Trojaola Ibai-Arte elkarteko lehendakaria ere penatuta agertu zen. Hala ere, “badut itxaropenik, ea denon artean geurea dena lortzen dugun. Irlandan ere konpon- du dira, ezta?”.

Josu Sarasua Arrasate Ikastolako irakasleari gehie- gizkoa iruditu zitzaion ETAK hartutako neurria. “Jarri zaiz- kion trabak eta izan dituen mugak direla eta, bake pro- zesuak ez du funtzionatu. Iku- si egin behar orain ETAre- na benetako ultimatum den edo hauteskundeei begira hartu- tako erabakia, partidu estata- listak bidean sar daitezen”.

Arrasateko alderdien iritzia

- **Xabier Zubizarreta (EH):** “Lehen defenditzen genuen proiektu berbera defenditu behar dugu. Ezker abertzalearen ikuspegitik, gure asmoa prozesu horretan sakontzen jarraitzea da. Gure erabakietako bat Lizarra- Garaziko bilera deitzea izan da, egoera han aztertzeko”.
- **Itsaso Garai (EAJ):** “Harri- tuta geratu nintzen irratian entzun nuenean, zeren eus- kaldunon esperantzak apur- tu egin baitira honekin. Itxa-

ron egin behar, 3an zer ger- tatzten den ikusteko”.

• **Jose Mari Urizar “Ametzu” (EA):** “Sekulako disgustua hartu nuen. Hemen badago proiektu bat, euskaldunon artean atera behar duguna eta hori entzun nuenean, pentsatu nuen txakurretara joan dela. Su etena hausten bada, euskaldun guztien aur- ka joango da”.

• **Paco Garcia (PSE-EE):** “Hau ez da ona Euskadi-

rentzat. Badut, hala ere, ETAK esandakoa beteko ez duen itxaropena. Honek arrazoia ematen digu aber- tzale ez garenoi: Lizarrako hitzarmena lehertzeko zorian zegoen eta lehertu egin da”.

• **Antonio Palacios (PP):** “Guretzat gogorra da, bada- kigu-eta gu izan gaitezke- la lehenak horren ondorio- ak sufritzen. Hala ere, ge- ure jarrerari eutsi beharrean gaude. Espero dezagun ez

garela itzuliko garai bateko egoera gogorrera eta azken aldi honetan herrian ezarri den itxaropena nagusituko dela”.

• **Joseba Ugalde (EB):** “Albis- te txarra da eta politikoon porrota erakusten du. Denok dugu errua, baina gober- nuarena handiagoa da. Espe- ro dezagun ez dela atenta- turik izango. Denok batzeko premia dugu, lanean serio jarri eta ea bakea lortzen dugun”.

Giza Baliabideen irakaskuntza bizi-bizi



Humanitate Fakultateak etxe berria du.

Eskoriatzako Humanitate Fakultateak pasa den ostegunean inauguratu zuen etxea, hiru urtez eskolak ematen egon ondoren. Orain bi urte erosi zuen Gizabidea Fundazioak San Viatorreko fraideek Eskoriatzako zuten etxea, urtebeteko negoziazioen ondoren. 300 milioi pezeta ordaindu zizkion San Viatorri XVI mendeko etxe dotore honen truke. Giza Baliabideen karrera Eskoriatzako ezarri zenean, argi ikusi zen Irakasle Eskola txiki geratu zela hainbeste ikasle-erentzat.

Horregatik, 150 milioitiki gora gastatu ditu eta Gizabidea Fundazioak etxea Giza Baliabideen Fakultatearen premietara egokituko. Euskal Herriko makina bat ikasle Eskoriatzara joaten da egunero fakultate honek eskaintzen dituen ikasketak egitera.

GIZA BALIABIDEETAKO LIZENTZIATURA

Enpresagintzaren giza alderdiara zuzendutako ikasketak eskaintzen ditu karrera honek. Gizartean eta enpresan dagoen testuinguru berrietara egokitzea da karreraren asmoa. Hau da, gero eta gehiago pertsonen inplikazioa eskatzen da

enpresetan. Hori ikusita, behar horiek asetzeko da karreraren helburua.

Bostezaugarri nagusi dituzte ikasketok: Batetik, ikaslea bere ikasketaren kudeatzaile izatea; bestetik, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana lotzea. Era berean, ikasleek berritzeko eta sortzeko gaitasuna izatea ere lortu nahi da, etorkizunaren ikuspegi izan eta eskari eta premia berriak irakurri eta interpretatzeko gaitasuna lor dezaten. Horrez gain, ikasleek gertatzen berriak ezagutzeko nahi da, horietara egokitzen jakin dezaten. Bukatzeko, lankidetzara sustatu nahi da.

IKASLEAK

Hiru urte hauen ondoren, ikasle kopuru polita bildu du Humanitate Fakultateak. Aurtengo 536 ikasle matrikulatu dira: 401 Gipuzkoakoak, 96 Bizkaikoak, 30 arabarrak eta 9 nafarrak. Ikusten denez, Euskal Herri osoko ikasleak etortzen dira Eskoriatzara Giza Baliabideak ikastera.

Beste urtebetez, Biteri Ikastetxe Nagusia abian

MUko beste gune batera egin-goto dugu salto segidan. Izan ere, ostiralean dotorezia eta protokoloa nagusi egin ziren Amaia Antzokian. Biteri Ikastetxe Nagusiaren ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldia egin zen.

Biteri Ikastetxean bizi diren ikasleak bereziki apaindu ziren ekitaldirako. Ekitaldiko gonbidatu bereziak ere ez ziren nolanahikoak izan. Besteak beste, Unibertsitateko errektorea, Jabier Retegi, Eskola Politeknikoko zuzendaria Jabier Retegi, Jon Sarasua irakaslea, Iñaki Madinabeitia, Ikastetxe Nagusiko zuzendaria, Oskar Cuevas,

Eskola Politeknikoko dekanoa, eta Xabier Zubizarreta alkatea han izan ziren.

Ekitaldia hasteko aurreko ikasturteko memoria irakurri zen. Horren ondoren, Jon Sarasua irakasleak, lehen eskola eman zuen antzokiko ikasgela berezian. Segidan, Ikastetxe Nagusiko Ikasle Nagusiak izendatu ziren eta ohorezkoak ondoren. Hauen artean aipatzekoa Jabier Rete-

giri egin zitzaion omenaldi berezia.

Amaieran diplomatuei Eskolaren harmarria eman zitzaion. Ez zen, ordea, ekitaldia horretan amaitu. Hainbesteko ofizialtasuna alde batera utzita, mahaiaren bueltan bildu ziren ekitaldira joandako guztiak, lagun arteko giroan eta ondoren, antzerki saio batekin amaitu zen Biteri Ikastetxe Nagusiaren ikasturtearen hasierako ekitaldia.

BIZILAGUNAK

Eskoriatzako, Oñatiko, zein Mondragoeko fakultateetan ikasten duten MUko 280 ikasle egiten dute bizimodua Biteri Ikastetxe Nagusian.

Bi eraikinek osatzen dute ikastetxea. Batean, logelak daude eta bestean, berriz, bestelako beharrak asetzeko instalazioak: jangelak, bulegoak, telebista gela eta antzekoak.

URTEKO LANA

Ikasleen eguneroko bizitzaren barruan ekintza ugari izaten da Biteri Ikastetxean: mendirteerak, gitarra, txalaparta, bertsolaritza, trikitixa eta dantzak ikastaroak, bestelako kirol ekintzak... Horrez gain, ikasketetan laguntzeko tutoretza programa ere badute.

Mondragon Unibertsitatea lan ugariarekin dabil aspaldian



Ekitaldi ugari izan ziren Biteri Ikastetxe Nagusiaren ikasturte hasieran.


J. Ortubai hil da, bosgarren bikaina

Jabier Ortubai, kooperatibetako sortzailetariko bat, hil da. Baten batek esan duenez, bost gazte bikainek sortu zuten Ulgor kooperatiba 1956an: Usatorre, Larrañaga, Gorroñogoitia, Ormaetxea eta Ortubai. Denak mondragoetarrak. Beren abizenekin Ulgor akronimoa sortu zuten. Haietatik bosgarrena, Jabier Ortubai Arana, joan den astean hil zen, Gasteizen. Beste bat, Usatorre 1966an hil zen, bihotzkoak jota.

Uztailean Ortuibaik estrapozu asko egiten zuela konturatu ziren lagunak —Gasteizen bizi diren lagun mondragoetarrekin (Juanito "Pintor", Aranzabal...) egiten zuen txikiteoa—. Abuztu aldera tumor bat antzeman zioten buruan; osatzen ez den horietakoa. Azkenerako berba ere galdua zuen.

Gaztetan, Ortubaitarrak ferixaleku gainean bizi ziren. Aita Unión Cerrajerako behar-gina zuen eta berak, Ormaetxeak eta gainerakoek bezala, Aprendices eskolan ikasi zuen. On Jose Mariak Zaragozara bidali zituen lehen 11 ikaslearen artean zegoen, bera gaztarena, eta hantxe hartu zuen perito titulua.

Teknikari proiektista zen UCEMen. Handik DKWra joan zen, Gasteizera eta hantxe ezkondu zen. Bere betiko lagunek deituta, Ulgorren sorreran hartu zuen parte. Lau bat urte egin zituen eta berriz ere Gas-



Ulgor Kooperatibaren sortzailetariko bat izan zen.

teizera joan zen. "Badakizu", esan du Jesus Larrañagak, "oilar asko zegoen gure oiletégian eta hura Gasteizera joan zen, bere bizi-eremua bilatzera". DKWra itzuli zen, baina laster, Aprendices eskolako zenbait lagunekin batera, bere enpresa sortu zuen: Kemen.

Hasieran autogintzarako piezak egiten zituzten, baina laster Italiako lizentzia batzuk eskuratu zituen bulegoetarako altzariak egiteko eta aldatu egin zuen enpresaren jarduera. "Europar esparru hone-

tan gehien zekitenen arteko bat izatera iritsi zen", esan du Jose Ignacio Odriozola, Kemeneko zuzendariak. 1995ean, DKW enpresa alemanak erosi zion Kemen.

Emaztea eta bost seme-alaba utzi ditu. Gasteizen bizi dira, baina hauetako inork ez ditu aitaren urratsak jarraitu.

Arrasateko herriak joan den astelehenean eman zion azken agurra San Joan Bataiatzailearen parrokian, Jabier Ortubai seme saiatuari. Goian bego, Jabier Ortuiba.

Jabier Ortubai Arana, joan den astean hil zen. "Europar esparru honetan, gehien zekitenen arteko bat izatera iritsi zen"
(Jose Ignacio Odriozola).

Lan arriskuak gutxitu beharra

Lan Arriskuen Prebentzioaren Eguna zela eta, bost minutuko lan uztea deitu zuten joan den asteartean Confefaskek, kooperatibek, sindikatuek eta Eusko Jaurlaritzak.

Deialdia berandu iritsi zen Arrasateko kooperatibetara eta talde bezala ezin izan zuten bost minutuko lan uztea egin. Dena dela, eta hainbat lekutatik jakinarazi zigutenez, hainbat pertsonak egin zuten bat Arrasaten deialdiarekin.

Enpresetan prebentzioa landuko duten teknikarien beharra azpimarratu nahi izan zuten deialdiaren sinatzaile guztiak.

Legearen arabera, 500 langile baino gehiago dituzten enpresetan derrigorrezkoak dira tekniko hauek. Herriko kooperatibetan, badaude teknikariak lan honetan. Hiru hilabetero langile eta zuzendaritzaren ordezkariakin bilerak egiten dituzte.

Lagun Aron dabilzan 20.500 langileen artean, iaz 1.002 istripu gertatu ziren; orain dela bi urte baino %23 gehiago. Gaixotasun bajak, berriz, 1997tik 98ra bitartean, %15 igo ziren.

Zergatik istripu gehiago? Adituek diotenez, lanorduen ghitzeagatik eta horrek dakarren lanerako kontzentrazio ezagatik. Horrez gain, aldi bateko kontratuekin gero eta jende gehiago ari denez, areagotu egin dira lan istripuak.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

UNZUETA
J A T E T X E A
Karta
Menu bereziak
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Zabola auzoa. ARAMAIO.
Tel.: 945 44 50 95

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

“AMETS BAT ERAIKIZ”

Jose Maria Arizmendiarieta lehiaketako irabazleek jaso dute saria. 14 eta 16 urte bitartekoan artean, lehen saria eta 100.000 pezeta, Eneko Fernandezek eta Oxel Etxebarriak irabazi zuten. DBHn, berriz, lehen saria eta 150.000 pezeta, Miren Igartua, Ainhoa Martin eta Leire Oianguren hirukoteak.

Zorionak guztiei eta ea zuen ametsa eraikitzen duzuen!



ZORIONAK!

“Mundu bete zorion Jose Luis ta Leire, bihotzak eman dio geroari bide. San Juanetako suak egin du mesede, berotuko zaitue negu hotzan ere”.

BIZIRAUTEKO BORROKAN

Ekvadorreko Amazonia ohianaren bihotzean bizi dira bi pertsona hauek. Shuar komunitateko ordezkariak dira. Naturaren baliabideez horniturik bizirauten duen komunitatea da. Baina nazioarteko konpainia esplotatzaile askoren erasoak jasaten ari dira eta horren aurrean jendea sentsibilizatzeko gure artean izan ziren pasa den astean.





GABONETARAKO PRESTATZEN

Kontsumoa eta Gabonak izenarekin, hiru hitzaldi eskaini ditu Eroskiren Kontsumo Aretoak aste honetan. Gabonetako protagonista nagusiak izan dira hizpide: sukaldaritza, lore apainketa eta jostailuak. Monterongo hitzaldietara agertu den emakume kopurua ikusita, jendea pozik geratu da.

IZENAK

Joxe Mari Muxika

Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaritza berriko kide izendatu dute Joxe Mari Muxika, Arkoko lehendakariordea. Joxe Marik eta beste hamar lagunek osatzen dute zuzendaritza berria. Beren helburu nagusia euskarazko unibertsitatea bultzatzea izango da.



38KO EMAKUMEAK

1938. urtean jaiotako emakume talde polit hau larunbatean batzokian bildu zen kinto bazkaria egitera. Bapo bazkaldu zuten gainera: sarrerakoak, okela, arraina, txanpaina.... Eta jakina, horren ondoren ezin falta lehengo eta oraingo kontuen inguruko berriketaldia!!

URKULUREN MISTERIOAK ARGITZEN

Debagoieneko udal ordezkariak zeregin berezi bat izan zuten pasa den astelehenean: etxean jasotzen duten ura nondik datorren eta nola lortu den jakitea. Horretarako, Gipuzkoako Ur Partzuergoak, bailarako goi alde honetako hautetsi berriak Urkulu bisitatzera gonbidatu zituen eta hantxe ibili ziren denak, gora eta behera urtegiaren misterioak ezagutzen.



Landa turismoa: euskal a

193 baserri daude Euskal Autonomia Erkidegoan, modu batean edo bestean, landa turismoa dihardutenak. Landa edo baserri turismoa eta baserri etxeak bereiztu behar dira, baina. Baserri turismorako etxeek lurra lantzetik eta aberetatik lortzen dute diru sarre-

ra handiena, eta turismoa diru sarrera horiei laguntzeko modua baino ez da. Baserri etxeak berriz, ez daude baserri jarduera bat mantentzera behartuta. Debarroan ere badira landa turismoaren aukera egin duten baserriak, eta guk batzuen testigantza jaso dugu.

Landa turismoak (turismo berdea edo turismo aktiboa izenez ere ezagutzen denak) Katalunian du jatorria, "pagé etxeetan", hain zuzen ere. EAEan zabaldu zen gero, eta Nafarroan ere bai 1989an. Asturias, Kantabria, Aragoi eta Andaluziak ere aurreko komunitateen ildo beretik segitu zuten, hurrenez hurren.

Euskal Herriko landa turismoak, ordea, badu besteetiko desberdin egiten duen zerbait: nekazariak beraiek eskaintzen dizkiete ostatua eta aisialdirako ekintzak turistei, bizitoki dituzten baserrietan. Nekazaritzako plangintza estrategikoaren baitan euskal administrazioak bultzatutako jarduera da, lurraren eta aberreen ustiakuntzatik lortutako irabazpideak dibertsifikatzeko asmoz aurrera eramane dena.

LEGEA

Gobernuaren laguntzak jaso nahi izanez gero, ezinbestekoa da nekazaritzan aritzea eta bertatik gutxieneko diru sarrera batzuk lortzea. Bestalde, etxeak baserri tradizionalaren itxura izan beharko du, eta sei

"Landa-turismoak baserriaren osagarri izan behar du; inoiz ez ordezkoi"

gela izango ditu gehienez ere, turismora zuzenduta. Jangela eta egongela edukitzea ere ezinbestekoa da. Diru laguntzen truke, baserriarrak gutxienez bost urtean baserri turismoan aritzeko konpromisoa hartzen du.

ALDE ON ETA TXARRAK

Baina, landa turismoaren hautua egiteak badakartza berekin betebeharrak: turistei kasu egin beharra, garbitasuna zaintzea, bizimodu berrira ohitzea... beste profesionaltasun bat eskatzen du horrek, eta lehenik baserriak lan handia ekartzen badu, karga hori areagotu egiten du landa turismoak.

Arientza auzoko Mitarte Garaikoek 1991n ireki zuten

baserria turismora. Ehun eta hirurogei bat ardi dituzten arren, Bixente Pagoagak jakinarazi digunez, gaur egun baserri bizi izatea nahiko gaitza da. Beraiek Iruñeko neska batek animatuta pentsatu zuten landa turismoa jartzea. Orain arteko ibilbideari begiratuta, Bixentek alde onetan baino ez du erreparatzen: "oso jende jatorra etortzen da, eta asko ikasten da, pertsona aberastu egiten da. Baserri bizi-tzea zaila da, eta honek lagundu egiten du. Bestalde, kanpotarrei baserri mundua erakusteko bidea ere bada".


"NEKAZALTURISMOA"

1991. urtean "Nekazalturismoa" izeneko elkarte sortu zen, EAEko baserri turismoe-



Turismoa baserri jardueraren osagarri bat da

BATAZ BESTEKO EGONALDIA LANDA TURISMOETAN



tako jabeak batzeko xedearekin. Elkarte horrek EAEko 193 baserri etxe eta landa turismoko etxeetatik 175 biltzen ditu bere baitan. Informazioa eskatzeko eta lekuen erreserba egiteko bulegoa izateaz gain, beste hainbat betebeharrak ere baditu elkarte horrek: landa turismoetako jabeek

Baserriaren etorkizuna?



turismora zuzendutako baserrietan.

ak, baserri girotik egiten duen eskaintza hirigunera hurbiltzeko helburu garbiarekin.

BISITARIAK

Nekazalturismoa elkartetik helarazi diguten informazioaren arabera, baserri turismoaren kontsumitzaile nagusiak euskaldunok gara, urte osoan aukeran dagoen zerbait dela jakinda, mugitzeko eta ingurunea ezagutzeko joera baitugu. Gipuzkoarrek maiz jotzen dute Valderejo eta Sobroneko parke naturalera, Arabako Ullibarri-Ganboako urtegieta eta Bizkaiko enkarterrietara. Bizkaiko Arabako Errioxara, Gorbeia inguruetara eta Gipuzkoako barnealdera (Tolosaldea, Goierri, Debarroa) joatea dute gustuko, eta arabarrek kostaldera eta Durangaldera egiten dituzte beren irteerak gehienetan.

ATZERRITARRAK

Kanpotarren artean kataluniarrek eta madrildarrak dira landa turismotara gehien hurreratzen direnak, eta baita frantses, ingeles eta alemaniarrek ere. Bixente Pagoagak dioenez, gehien bat Kataluniatik etortzen zaie jendea: "Valentziatik, Madrildik eta Euskal Herritik ere etortzen dira, baina %90 katalana da. Xuhur fama daukate gainera, baina nik esango nuke guztiz bestelakoak direla", argitu digu Bixentek.

Dena dela, beste erkidegoetako bisitarien kopurua nabarmen ari da igotzen. Guztiek ere lekuaren erakargarritasunarengatik eta lasaitasunarengatik aukeratzen dute baserri turismoa oporleku gisa, eta behin probatu ondoren berriro itzultzen direnek (asko baitira, %72 zehatz esateko)

jabeengandik jasotako tratuegokia azpimarratzen dute. Bidenabar, landa turismoan inoiz izan direnen asetze maila erabatekoa dela esan daiteke, %100ekoa, alegia. Bixentek aitortu digunak ere horixe uste izatera eramaten du: "Bezero finkoak ditugu. Zubietan eta udan jende asko etortzen da, eta bestelakoan enpresetako jendea ere bai. Behin etorrita, asko berriro etortzen dira gainera".

Baserritik bizitzea gogorra denik ezin da ukatu, eta beharbada horregatik ireki dizkiete etxeko atek kanpotarrei hainbeste baserritarrek. Hori ote da Euskal Herrian baserriaren etorkizuna? ■

Maidor Osa

EHNE-REN IRITZIA

EHNEk beti ikusi du ongi landa turismoa baserrietako jardueren osagarri gisa. Maite Aristegi EHNEko idazkari nagusiak ere baserri turismoaren aldeko apustua egin du Bergarako San Martzial auzoan duen Lamaiño-Etxeberri baserrian.

— Zergatik jarri duzu landa turismoa?

— Gure baserriarentzako osagarri ona izan zitekeela ikusi genuen. Dauxkagun ganaduekin, baratzarekin eta pinudiekin ongi osa daitekeen jarduera da. Gainera, Bergaran ez dago beste landa turismorik, eta eskaera egon, badago.

— Hasieran EHNEk ez zuen begi onez ikusten. Zein ikuspuntu du sin-

dikatuak gaur egun?

— Baserritarren sindikatuen barruan ere badago kezkarik, turismoak baserrien berezko izaera ordezkatzeko duen beldur baikara. Arazoa turismoa baserriko aktibitateen ordezkotako bilakatuko balitz sortuko litzateke, garbi daukagu eta baserri gehiago ezin dela galdu. Dena den, turismoak baserritarrei duin bizitzen eta baserria eusten laguntzen duen neurrian, baserri aktibitateak bizirik iraungo du.



aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, komertzioaren ikerketa gauzatzea eta landa etxeak promozionatu eta beraien publizitatea egitea, besteak beste.

1999ko uztailean lekuz aldatu zuen bulegoa Nekazalturismoa Elkarteak, eta Donostiako Kursaalera ireki zituen ate-



ASTE BURU LASAIA

Ez zen gauza berezirik gertatu Zaldibarren joan den asteburuan. Dena nahiko ondo joan zen eta ez zen inolako arazorik izan. Baina, noski, salbuespenak beti salbuespen: talde bat ez zen epaitu beharreko partidara agertu. Iturripe B zelaian, arratsaldeko 15:00etan zuen hitzordua Makai taldeak. Bere lana AC Surkos eta Orlando Piratas taldeen arteko partida epaitzea zen. Baina bazkalostekoa luzatzea hobe zela pentsatu omen zuten eta ez zen taldeko inor agertu.

Horren aurrean, antolakuntzak Makai taldea zigortzea erabaki du. Lehenik eta behin, bi puntu kenduko dizkio. Joan den astean ez zuen punturik eta orain, bi gutxiago! Asteburu honetan irabazi egin beharko du Koka Juniors taldeak Basati taldearen aurka duten partida, berriz ere hutsetik hasteko. Bestela minus ~~1~~ punturekin egongo da sailkapenean, bera bakarrik.

Baina horrez gain, Bonba Taldieko kideek, Makai taldeari fidantza kentzea erabaki dute.

Beraz, adi beste taldeok! Serio hartu araudia, bestela



Zubirik ez Zaldibarren

Zaldibarko jokalariek ezingo dute zubi luze honetan jairik hartu. Ez bahintzat larunbata baino lehen. Partidak jokatu beharra izango dute eta. Animo mutilak! Beste hiru egun dituzue eta!

sosik barik geratuko zarete eta!

LONTXORI OHARRA

Sosik ez dutenak, dirudienek, Lontxo Taberna taldekoak dira. Lehen jardunaldiaz geroztik txapelketatik kanpo gelditu da talde hau, eta orduan ere antolakuntzak abisua eman zion: "fidantza ordaindu barik hasi

ziren jokatzeko eta nahiz eta txapelketatik kanpo gelditu diren, ordaindu beharra dute". Dirudienek, ordea, Lontxokoek ez dute horren argi eta oraindik, behintzat, ez dute pezeta bat bera ere ordaindu. Horren aurrean antolakuntzak gauzak argitu nahi ditu eta hauxe jakinarazi die Lontxo Tabernako

kideei: "aurtengo fidantza ordaindu ezean, hurrengo urteko txapelketari begira ez dute parte hartzeko aukerarik izango eta txapelketatik kanpo geratuko dira hasi aurretik. Antolakuntza eta beste taldeekiko errespeto falta da eta lehiakortasuna arlo guztietan da beharrezkoa".



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Emaitzak

A taldea

Atxanta el Ret. 2 - Goma Bi 12
 Ume Zikinak 5 - Kobate Har. 4
 You Know 5 - Kanpazar Har.2
 Etxe Mobil 2 - AT Lokala 3
 Saukelu Scream 1 - Kom. Alp. 4
 Fraguél Gol 4 - Giraldilla Con. 1
 AC Surkos 3 - Orlando 3
 Xhasss Ugarte 3 - Betrayer 2
 DA Iristu 3 - Totem 2
 Irati STS 8 - Bar Nuevo 1
 Sokoakoak 1 - Lontxo Taberna 0

B taldea

Branka Taberna 2 - Dribling 11
 Txeyenex 2 - Kamasutra 1
 Sas T 2 - Borrock & Roll 9
 IKP 7 - Garaje Oscar 4
 Timoftol SMD 5 - Potroak 1
 KJ Basati 8 - EPEH 5
 Leya 1 - Serengeti 3
 Aldibi 4 - Aurrera Bolie 4
 AKTA 10 - Makai 0
 Etxerat Tab. 8 - Makanudos 4
 Alai Gozokiak 2 - KK Jaur. 7

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
Ume zikinak	3	3	0	0	23	12	6
You Know	3	3	0	0	18	8	6
AT Lokala	3	3	0	0	18	4	6
K. Alpargat	3	3	0	0	12	4	6
AC Surkos	3	2	1	0	18	16	5
Kanpazar Harrobia	3	2	0	1	20	8	4
Orlando	3	1	2	0	20	12	4
Irati STS	3	2	0	1	20	8	4
Sokoakoak	3	2	0	1	12	9	4
Kobate DKB	3	2	0	1	11	9	4
DA Iristu	3	1	1	1	8	8	3
Goma 2	3	1	0	2	15	14	2
Xhasss Ugar.	3	1	0	2	12	24	2
Totem	3	1	0	2	10	16	2
Betrayer	3	1	0	2	9	13	2
Giraldilla Con.	3	1	0	2	9	21	2
Fraguél Gol	3	1	0	2	9	12	2
Sau. Scream	3	1	0	2	8	8	2
Etxe Mobil	3	0	0	3	7	20	0
Atxanta el Ret.	3	0	0	3	5	33	0
Bar Nuevo	3	0	0	3	4	19	0
Lontxo Tab.	3	0	0	3	0	3	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi.	Aurk.	Guzt.
Etxerat Tab.	3	3	0	0	23	10	6
Dribling	3	3	0	0	22	4	6
KJ Basati	3	3	0	0	21	11	6
IKP	3	3	0	0	19	9	6
KK Jauriaritzari	3	3	0	0	15	3	6
Timoftol SMD	3	2	0	1	24	12	4
Borrock & Roll	3	2	0	1	22	9	4
EPEH	3	2	0	1	19	14	4
Aurrera Bolie	3	1	2	0	13	12	4
Serengeti	3	2	0	1	9	10	4
Branka Taberna	3	1	0	2	21	17	2
Garaje Oscar	3	1	0	2	19	13	2
Kamasutra	3	1	0	2	14	10	2
AKTA	3	1	0	2	12	9	2
Alai Gozokiak	3	1	0	2	9	17	2
Txeyenex	3	1	0	2	4	14	2
Makanudos	3	1	0	2	10	28	1
Potroak	3	0	1	2	7	14	1
Sas T	3	0	1	2	7	19	1
Aldibi	3	0	1	2	7	25	1
Makai	3	0	0	3	7	31	0
Leya	3	0	0	3	5	18	0



Hurrengo partidak

abenduak 4, larunbata

Zaldibar	Epailea
08:50 Bar Nuevo - Betrayer (Irati STS)	
10:00 Kobate Harrobia - Irati STS (Betrayer)	
11:00 Makai - Koka Juniors (Kobate DKB)	
12:00 Goma 2 - DA Iristu (Koka Basati)	
13:00 AT Lokala - AC Surkos (DA Iristu)	
14:00 Giraldilla Con - Saukelu Scream (AT Lokala)	
15:00 Makanudos - Aldibi (Giraldilla)	
16:00 Aurrera Bolie - IKP (Aldibi)	
17:00 EPEH - Leya (Aurrera Bolie)	
18:00 Borrock & Roll - Branka Tab. (Leya)	
19:00 Dribling - Etxerat Tab. (Borrock & Roll)	

Iturripe A

15:00 Kanpazar - Atxanta el Retorno (Kamasutra)

16:00 Kamasutra - Alai Gozokiak (Kanpazar)

17:00 Serengeti - Txeyenex (Alai Gozokiak)

Iturripe B

15:00 Garaje Oscar - Timoftol (Totem)
 16:00 Totem - Etxe Mobil (Timoftol)
 17:00 KK Jauriaritza - Sas T (Etxe Mobil)

abenduak 5, Igandea,

Zaldibar

09:50 Xhasss Ugarte - You Know (Sokoakoak)
 11:00 Sokoakoak - Fraguél Gol (Xhasss Ugarte)
 12:00 Komando Alpargat - Ume Zikinak (Fraguél Gol)
 12:00 Potroak - AKTA (Ume Zikinak)

Atsedena: Orlando

SASKIBALOIA Bigarren aldirako prest



Lehen aldiko azken partida jokatu zuen Kenci Arrasate saskibaloitaldeak larunbatean. Dagoeneko zazpi partida irabazi ditu segidan. Hasierako zailtasunak gainditu eta gero, 88 eta 59 irabazi zuten etxekoek, Donostiako Santo Tomas Lizeroaren aurka.

Datorren astean bigarren aldia hasiko dute arrasatearrek, sailkapeneko lehenengo tokietan. Gernikako taldea izango dute aurrez aurre. Bizkaian jokatu zutenean galdu egin zuten arrasatearrek. Maritxu Kajoi ostean jokatu zuten eta bixamonak pisu handia izan zuen. Orain, sasoiaren daude eta agian errebantxa izango dute. Partida larunbatean izango da.


FUTBOLA Garaipen polita



Kadete mailako Mondra taldeak irabazi egin zion Eibartarrak taldeari. Lehen zatian bi gol sartu zituzten arrasatearrek. Jokoari dago-kionez antzera ibili ziren bi taldeak, baina arrasatearrek euren bi aukerak aprobetxatzen jakin zuten. Bigarren aldiko 45 minutuak defentsarako izan ziren. Etxekoek ez zuten atea zaindu besterik egin, beste gol bat ere sartu zuten arren. Azken emaitza 3 eta 0ekoa izan zen, etxekoen alde. Aste honetan ere Eibartarrak taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak, baina Eibartarrak A taldearen aurka, Eibarren.

Talde nagusiak galdu egin zuten kanpoan eta aste honetan ere kanpoan jokatuko du.

XAKEA Indarrak berreskuratzen



San Andres Xake taldeak irabazi egin zuten joan den larunbatean etxean. Donostiako Gros C taldea izan zuen aurrez aurre eta 3 eta 1 irabazi zioten talde bisitariari. Tornay, Hernando, Ruiz eta Ortega aritu ziren etxeko laukotean eta lehenengo hiru-erak nahiko samur irabazi bazuten ere, azkenaren partidak gaueko 22:00ak arte iraun zuten.

Aste honetan jai hartuko dute, jaiak tarteko. Aurreko astean iragarri genizuen batzar orokorrari dago-kionez, Josu Tornay proposatuko dute taldeko lehendakari eta hamabost eguneko epea irekiko dute edonork beste proposamenen bat aurkeztu nahi izanda ere.

ATLETISMOA Donostiako maratoia



Bederatzi arrasatear aritu ziren joan den igandean Donostiako Maratoian. Chebet irabazleak, 2 ordu 12' eta 4"tan egin zuen ibilbidea. Arrasatearren artean azkarrena, Luis Mari Ubar- te izan zen eta 2 ordu 44' eta 42" behar izan zuen helmuga iristeko. Atzetik iritsi ziren:

Joseba Ugalde	2 h. 47' 42"
Cesar Diez	2 h. 48' 00"
Ramon Goñi	3 h. 12' 58"
Isidro Bueno	3 h. 23' 35"
R. Ormaetxea	3 h. 59' 04"
Elena Zubizarreta	3 h. 59' 04"

Enrike Kabiketa, Jabier Mentxaka eta Josu Ugartek ez zuten amaitu.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Arrasate 15 - Eibar 0
- **Kadeteak:**
Atletico de San Sebastian 5 - Arrasate 74

- **Gazteak:**
Almen Arrasate 11 - Bergara 26
- **Kadeteak:**
Arrasate 17 - Almen 14

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Zarautz 1 - Mondra 0
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra 8 - Beti Ona 2
- **2. gazteak:**
UDA 1 - Arrasate 3
- **Ohorezko kadeteak:**
Baskonia 1 - Arrasate 3
- **2. kadeteak:**
Arrasate 3 - Eibartarrak 0
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate 1 - Eibartarrak B 1
- **Errejional maila, neskek:**
Mondra 0 - Elgoibar 4

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Kenci Arrasate 88 - Santo Tomas Lizeoa 59
- **Juniorrak:**
Kenci Arrasate 76 - Etxadi Argisan 60
- **Kadeteak mutilak:**
Kenci Arrasate 38 - Santo Tomas Lizeoa, Azkune 80

XAKEA

- **Errejonalean:**
San Andres 3 - Gros C 1

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Hernani 22 - Arrasate
Almen 19

Jokatzekoak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Jai
- **Gazteak:**
Jai
- **Kadeteak:**
Jai

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Arrasate Almen - Bergara, larunbata, 16:00.
- **Gazteak:**
Jai
- **Kadeteak:**
Jai

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Hamaika Bat - Mondra
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra - Allerru, larunabata, 15:30.
- **2. gazteak:**
Arrasate - Urki, larunbata, 12:00.
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate - Zarautz, larunbata, 10:00.
- **2. kadeteak:**
Eibartarrak A - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Elgoibar - Arrasate
- **Errejional maila, neskek:**
Hamaika Bat - Mondra

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Kenci Arrasate - Gernika, larunbata, 18:00.
- **Juniorrak:**
BKL - Kenci Arrasate

XAKEA

- **Seniorrak:**
Jai

Alberto eta Felix Iñurrategi markak hausten

Felix eta Alberto Iñurrategi astelehenean abiatu ziren Patagoniara. Han, Paineiko Erdiko Dorrean bide zail bat eskalatzeko asmoa dute, Magico Este bidea, hain zuzen. Jon Lazkano bergararrarekin batera EITB-arentzat zortzi dokumental hitzartu dituzte. Patagoniakoa izango da lehenengoa, baina horrez gain, beste irteera batzuk ere egingo dituzte:

— **Nola sortu da proiektua?**

— **Alberto:** Aspaldi genbiltzan asmo horrekin. Himalayatik kanpoko parajeetan ibiltzeko gogoia geneukan.

— **Felix:** Guretzako amets bat zen eta gure "kapritxoko" proiektua egiteko gogoia geneukan. Oso mugatuta geunden gure espezialitatera, hau da, 8.000koak egitera eta bes-



Astelehenean Patagoniara joan ziren atxabaltarrak.

terako hormak faltan genituen. Toki asko daude eskalada aldetik erakargarriak eta estetika aldetik asko lan daitezkeenak.

— **Egingo dituzuen igoretan, zein da erakargarriena?**

— **Alberto:** Guztiak dira erakargarriak. Patagonia, esa-

terako, paraje berria da eta terrenoa ere bai, honelako eskaladan ez gara inoiz ibili. Iraila-urrian EEBBetara bidaia eroso bat egingo dugu; disfrutatzeko bidaia izango da. Abenduan Malira joango gara, basamortuko eskalada egitera. Leku ezberdina da eta erakargarria oso. Zeelanda Berria, bestalde, gehiago ezagutzeko irrikaz

gelditu ginen 97an eta horretarako egokiera sortu da orain.

— **Egin barik dituzuen lau zortzimilakoak egiteko asmoa duzue. Errekorra gainditzeagatik?**

— **Alberto:** Himalayan erronka handia daukagu, ez egiteko arriskua ikusten dugulako eta horrek animatu gaitu erronkari baietz esatera.

— **Felix:** Ez zen hori gure asmoa, baina neurri batean bukatzeko konpromisoan jarri gaituzte eta horren aurrean, lehenbailehen eta modurik erakargarrienean egitea erabaki dugu. 4-5 hilabeteko epean egiteko asmoa dugu eta hemen gehien erakartzen gaituena, ez lortzeko arriskua da hain zuzen. Baina helburua ez betetzetik txarto irtetera alde handia dago.

Elastikoa estreinatu zuten larunbatean



Taldeko argazki ofizialak atera zituzten Errugbi taldeek joan den larunbatean.

Morez jantzita zelairatu ziren larunbatean Arrasate Errugbi taldeko jokalariek. Elastiko berria estreinatu zuten errugbilariek eta badirudi on egin ziela; irabazi egin zuten eta. Ez zuten ordea, aurkari gogorra izan, nahiz eta hasieran lehiakortasun handiko

partida izango zela zirudien. Eibarko taldeak ezin izan zuten etxekoan jokoa gelditu. Lehen zatian 3 entsegu egin zituzten senior mailako arrasatearrek eta eibartarrek zelaian egon baino ez zuten egin. Bigarren zatian ez zen entsegu gehiagorik izan, bai-

na Eibarkoek orduan ere ezin izan zioten aurre egin etxeko taldeari. Azken emaitza Arrasate 15 - Eibar 0. Aste honetan jai hartuko dute errugbilari guztiek.

ELASTIKO BERRIAK
Larunbatean, bestalde, elas-

tikoak estreinatu zituzten herriko errugbi taldeek.

Denboraldi hasieran ziren iristekoak, baina hobe berandu, sekula ez baino.

Taldearen argazki ofiziala ateratzeko ere aprobeztatu zuten, partida egutegiak egingo dituzte eta.



Parte hartze arrakastatsua

Azkenean badakigu Arrasate Kirol Proiektuan (AKP) zenbat neska-mutikok eman duten izena. Arduradunek adierazi digutenez "Arrasateko ikaslegoen %50,7 AKPn aritu da". Iaz baino 5 puntu gehia-

go, beraz. Mailaz maila aztertuz gero, psikomotrizitatean, hau da, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako neska-mutikoen artean bost puntuko jaitsiera izan den arren, beste maila guztietan 10

puntuko igoera izan da, batez beste.

Hauen artean aipagarri da lehenengo espezializazioan, hau da, DBHko lehen eta bigarren mailetan, 12 puntuko igoera gertatu dela. Igoeraren

arrazoirik nagusia nesken partehartzeak gora egitea izan da. Izan ere, iaz baino 42 neska gehiagok eman dute izena AKPn. Neska hauek futbolean eta aerobikean aritzeko erabakia hartu dute, gainera.



San Viator A eta B neska taldeak.



San Frantzisko Xabier mutil taldea.



✌ Mendi irteera

Hirugarren mendi irteera ere antolatu du AKPk, Besaiderekin batera. Abenduaren 12an izango da eta oraingoan, Gatzagatik abiatu eta Aitzorrotzera joango dira. AKPko begiraleek esan digutenez, "gure bailaratik irten barik, hain ikusia eta aldi berean hain ezezaguna den mendi bitxi hori igo eta ikuspegi berri bat izango dugu".

Taldez talde

✌ SASKIBALOIA

MUTILAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
Aozaraza 2	2	2	2	0
San Viator	2	2	2	0
Mariaren Lagundia B	1	2	1	1
Arrasate B	1	2	1	1
Txantxiku DBH2B M	0	2	0	2
Mariaren Lagundia A	0	1	0	1
Arrasate A	0	1	0	1

NESKAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
BHI Kurtzeberri	2	2	2	0
San Viator	1	1	1	0
Almen	1	1	1	0
Mariaren Lagundia	0	2	0	2
Aozaraza 2	0	2	0	2



**Zeramika
erakusketa eta
salmenta**



Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80
ARRASATE

JABIER RETEGI (MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOKO ZUZENDARI)

“Lehen kurtsoa gogor”

Jabier Retegik 34 urte ditu, Mondragon Unibertsitateko errektorearen semea da eta Eskola Politeknikoko zuzendaria. Eskolan ikasi zuen: Ingeniaritza Teknikoa, mekanika arloan. Gero Montrealera joan zen lau urte eta erdiz. Ingeniaritza ikasketak sakondu eta master bat egin zuen, zientzia aplikatuetan.

— Irailean hartu zenuen zuzendari kargua. Zein helbururekin hasi zinen lanean?

— Ez da erraza hasieratik helburuak argi izatea. Hausnarketa epe bat derrigorrezkoa da. Eskolak lehendik hainbat erronka zituen Unibertsitateari dagozkionak. Aldi berean, MUko hausnarketa estrategikoaren barruan gaude eta horren emaitzak gure Gestio planean sartuko ditugu.

— Norantz jo behar du Eskola Politeknikoak?

— Goi Eskola Politekniko-

koko etorkizuna eta Mondragon Unibertsitatearena banaezinak dira. Unibertsitate izateari dagozkion Ikerketa eta Garapen jarduerak indartzea dugu helburu.

Doktoradutzak lantzen ditugu. Gure irakasleen formakuntza bultzatuko dugu. Zortzi irakasle ari dira doktoradutza egiten. Gero tesiak zuzenduko dituzte. Beste unibertsitate batzuekin elkar-tutorretza egingo dugu. Ezaguera arloan lan egiten duten erakundeekin harremanak sakondu nahi ditugu. Egiten genituen proiektu gehienak enpresari aplikatuak ziren. Proiektu jenerikoak ere bultzatu nahiko genituzke, hau da, aplikazio zuzen bat ez daukaten proiektuak, baina ezaguerak sortzeko balio dutenak.

— Enpresek eskatutako proiektuak lantzen dituzue?

— Proiektu jenerikoetatik sortutako ezaguerak enprese-


tara aplikatzen dira. Kontsultoriako proiektuak oso arazo zehatzak konpontzeko izaten dira.

— Ignazio Lakuntzaren lekukoa hartu zenuen. Nola aurkitu zenuen Eskola?

— Bere zuzendari-tzapean egin ziren lanek garrantzi handia dute. Unibertsitate beza-

la sakontze prozesu baten sartzeko aukera paregabea daukagu eta hori hamarkada honetan gauzatu da. Azken bost urteotan prestakuntza arautua eta iraunkorra garatu ditugu eta hori Lakuntzaren zuzendaritzapean egin da.

— Eskolan urte dexente egin dituzu, ikasten, irakasten eta Iraunkor sai-



“Goi Eskola Politeknikoaren etorkizuna eta Mondragon Unibertsitatearena banaezinak dira”

DARIA)

...ra da ingeniari-tzan”

leko zuzendari. Zer ekarri dizu lan bakoitzak?

— Nagoen lanpostuan lan egiteko lagungarri izan dira. Irakaslearen lana ondo eza-gutzea beharrezkoa da irakaskuntzari buruzko erabakiak hartzeko. Iraunkorreko zuzendari izateak kudeaketa-aren eta enpresaren arloan sar-tzeko aukera eman dit, bere beharrak ezagutzeko; honela, eskola horretara bideratzen ikasi dut. Pertsonalki, berriz, esperientzia berriak eta abe-ratsak.

— Ingeniaritza hemen egin zuen. Zer aldatu da?

— Orain dela 15 urte esko-la txikiagoa zen, baina funtsezko ezaugarriak hor zeuden. Prak-tikotasuna eta enpresarekin ditugun harremanak aspaldi-koak dira. Ikasle kopuruaz gain, euren hizkuntza perfila aldatu egin da. Orain %85etik gora eus-kaldunak dira. Lehen kurtsoe-

tan, euskararen presentzia asko areagotuko da. Lehenengo bi urteetan aukera dago euskaraz zein gaztelaniaz ikasteko. Gero, espezialitatearen arabera eta ikasle kopuruaren arabera, aukera izaten da bi talde egite-ko (euskaraz eta gaztelaniaz) edo bakarra (gaztelaniaz). Etor-kizunean gure asmoa Eskola-tik ateratzen den ikaslea elea-nitza izatea da, hau da, hiru hiz-kuntza menpera ditzala: eus-kara, gaztelania eta ingelesa. Horretarako Eskolak laguntzak eskainiko ditu, eskola-ordue-tatik kanpo hizkuntzetan sakon-tzeko. Aldaketen artean, uni-bertsitateak ekarri dituen alda-ketak aipatu beharra dago: 2. zikloko ikasketak, doktoradu-tzak eta proiektu generikoak.

— Montrealera joan zinen ikastera. Beharrezkoa da kan-pora joatea?

— Beharrezkoa ez da, bai-na esperientzia hartzeko auke-

ra ona da, teknikoki eta per-tsonalki. Gure eskolak aukerak ematen du atzerrian ikasketak burutzeko. Aurten 100 ikasle joan dira beste unibertsitate batzuetara. Kanada, Ingalate-rra, Frantzia eta Suitzako 24 uni-bertsitateetan daude, 2. eta 3. zikloak egiten.

— Beti entzun izan da Arra-sateko Eskola gogorra dela.

— Lehenengo kurtsoa beti gogorra izaten da ingeniari-tza eskoletan. Baina askok gain-ditzen dute. Lehenengo urtea ez da selektiboa, hau da, ez da beharrezkoa kurtso osoa gain-ditzea. Beste ingeniari-tza esko-letan baino ikasle gehiagok gaintzen dute hemen. Baina gogorra da. Aldaketa handia dago eskoletatik unibertsitate-ra. Oinarrizko zientzietan sar-tzen dira nahiko sakon, eta hori gogorra da.

— Ikasle gehiago dago

Eskolan. Baduzue nahikoa azpiegitura?

— Egia da eta joera gorantz doa. Bi urte barru beste erai-kin baten beharra izango dugu. Pausoak ematen ari gara hori aurrera eramateko. Bestalde, unibertsitateak izango duen garapenaren ondorioz, beste azpiegitura batzuen beharra izango dugu Arrasaten. Cam-pus teknologikoaren inguruko asmoak dira hauek eta gauza-tuko direla uste dut.

— Ingeniaritza ehuneko zenbat ikasle dira emaku-mezkoak? Eboluzio bat egin genezake datuak alderatuz?

— Gaur egun %21 eta orain dela 5 urte %10. Gora doa eta hori pozgarria da. Nor-malizazio prozesua gertatzen ari da eta emakumeak ere inge-niaritza ikasketak egitera ani-matzen dira. Nire garaian %3 zen gutxi gorabehera nesken batez bestekoa. ■



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Arrasate akordeoiaren hiriburua

Abenduaren 3tik 8ra Arrasate akordeoiaren hiriburu bilakatuko da, Arrasateko akordeoi txapelketak jokatuko baitira egun horietan.

Hiru sailetan banatuko da lehiaketa: "Gipuzkoako XX. Txapelketa" Amaia antzokian jokatuko da, haur, junior eta senior mailetan. "Gipuzkoako XII. Jaialdia" San Frantzisko Xabier ikastolan izango da, eta Euskal Herriko soinu-joleez gain, Espainiatik etorritako en doinuak ere entzungo dira.

Parte hartzaile guztiek, gainera, domina eta diploma bana jasoko dituzte. Baina ikusmin handiera "Nazioarteko Akordeoi Lehiaketak" sortarazten du. Hau zarpigarraren aldiz jokatu da aurten, eta Europa osoko soinu-joleirik onenak Arrasatera ekarraziko ditu.

FABORITOAK

"Arrasate Hiria" saria egongo da jokoan, eta faboritorik nagusiak Sergei Voitenko errusiarra, iaz bigarren postua eskuratu zuen Vladimir Blagojevic eta Dominique Emorine frantziarra dira. Euskal



Aitor Furundarena gipuzkoarrak ere lortu du saririk Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan.

ordezkari bat ere izango dugu, Ipar Euskal Herriko Philippe de Ezkurra, hain zuzen ere. Soinujole horien guztien lanak goi-mailako epaimahai batek epaituko ditu.

SARIAK

Sari oparoak izango dira Arra-

sateko Akordeoi Lehiaketan. "Arrasate Hiria" sariko txapelkunak dragoia eta milioi erdi pezeta eskuratuko ditu. Bigarren sailkatuak 250.000 pta, eta hirugarrenak, berriz, 100.000 pta. Horretaz gain, publikoak eskainitako saria ere emango da, iaz bezala. Izan

ere, harrera ona izan zuen.

Dena den, akordeoi doinuak jendearengana gehiago hurbiltzeko herriko zenbait tabernatan kafe kontzertuak ere antolatu dira.

Beraz, zubian herrian geldituz gero, aukera polita dago musikaz gozatzeko.

Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa

Bergarako Jardun euskara elkarteak Amodiozko Gutunen VIII. Berrigara Lehiaketa jarri du abian. Lehiaketa honetan 1985ean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak hartu ahal izango du parte, eta bidalitako lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan beharko dute. Gutun forma izatea ere ezinbestekoa da, eta DIN A-4ko orritan eskuz nahiz makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Era

berean, lanek gehienez ere bi orrialde izango dituzte.

Gutunean ez da jarriko egilearen nortasuna ezagutzera emango duen inolako daturik, eta lelo batez sinatuko da lana. Egilearen datu guztiak gutunazal itxi batean sartuko dira, eta gutunazalaren kanpoaldean lana sinatzeko erabilitako lelo bera ezarriko da. Datu horiek dituen sobrea, jatorrizko gutuna eta beste hiru kopia sobre han-

diago batean sartuko dira, eta 2000. urteko urtarrilaren 10a baino lehen ondorengo helbidera bidaliko dira: Amodiozko Gutunen VIII. Berrigara Lehiaketa / Jardun Elkartea / Juan Irazabal z/g (Gartzela zaharra) / 20570 Bergara.

Amodiozko gutunen lehiaketa honetako epaimahaia literatura eta kultura arloko hainbat lagunek osatuko dute. Irakurle gazteen sarirako epaimahaia, berriz, Bergarako hez-

kuntza ertaineko hainbat ikas-tetzetako ikasleek. Sariak otsailaren 14an, San Balendin egunez banatuko dira, Gartzela Zaharrean arratsaldeko 7etan izango den ekitaldian. Gutunik onenaren egileak 75.000 pta irabaziko ditu, eta 40.000 pta.koa izango da bigarren saria. Bergarar onenak, berriz, 25.000 pta poltsikoratuko ditu. Irakurle gazteek emandako saria Xabier Diaz de Zerionen eskultura bat izango da.

ITXARO ARTOLA (AED-KO KULTURA ERAGILEA)

“Ipuinetan jasotzen dugu lanik gehien”

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak Arrasate lehiaketak antolatu ditu, Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Aurten hamahirugarren aldia dute gainera. Itxaro Artola AEDko eragileak eman digu lehiaketa hauen nondik norakoaren berri.

— Zein sail bereiz daiteke 13. lehiaketa honetan?

— Sei lehiaketa antolatu ditugu, bi bloke nagusitan bereiztuta: batetik, ipuina, poesia, bertso-paperak eta komikia. Bestetik, berriz, Leintz eta Ugaran bailaretako euskaraz egindako grabazioak eta irrati-erreportajeak. Gero, lehiaketa bakoitza adinaren arabera mailakatu dugu.

— Zein helbururekin antolatzen dira?

— Bi helburu nagusi ditu: Hizkuntzari lotutako sormena (dela literaturan, dela komunikabideetan) euskaraz lantzeko pizgarri izatea eta eskualdeko artista gaztetxoan edo ezezagunen lanak kaleratzea. Literatura lehiaketetan saritutako lanak argitaratu egiten ditugu gero. Grabazioak, berriz, Arrasate Irratian eta euskaltegietan erabiltzen dituzte.

— Nori zuzenduta daude lehiaketak?

— Leintz eta Ugaran bailaretan bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake eta ez dago adin mugarik.

— Aurreko urteekin alderatuz, izan da berrikuntzarik?

— Ez. Azkeneko aldaketak orain bi urte egin genituen. Alde batetik, euskalki-grabazioen lehiaketa zehaztu zen eta irrati erreportajeena sortu. Bestalde, sail eta maila guztietan bigarren saria finkatzea erabaki genuen,



parte hartzaile gehiagoren ahalegina saritzeko.

— Zein sailetan jasotzen da lan gehien?

— Ipuinetan. Partaidetzan ikastetxeetatik bidaltzen dituzten lanek pisu handia izaten dute eta batez ere ipuina lantzen dute. Gainerako lehiaketetan gorabeherak izaten dira urtetik urtera.

— Adinari eta sexuari dagokionez, badago ezberdintasunik partaidetzan?

— 14-16 urte bitartekoan lanak izaten dira nagusi. Dena dela, azken urteotan nagusien maila ere majo hazi da. Generoari dagokionez, literatura lehiaketetan neskak nabarmentzen dira eta mutilak komikienean.

— Lanak nora eta noizko aurkeztu beharko dira?

— Epea 2000ko otsailaren 11n bukatuko da eta lanak AED Elkartearen bulegora eraman edo bidali behar dira, “Pablo Uranga kalea, 6 behea” helbidera.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Gomez Pardo Fundazioak energiari buruzko prestakuntzarako, ikastaro laburrak egiteko edo lan ikerketak egiteko beka deitu ditu. Epea: abenduak 10.

• CIOFF-INAEMek Folkloreari buruzko ikerketa beka antolatu du. Gaiak, estatu espainiarreko dantza, herri musika eta abestiaren ingurukoa beharko du izan. Epea: abenduak 30.

• Jose Migel Barandiaran Fundazioaren eskutik, arkeologia arloko ikerketa beka. Epea: abenduak 31.

■ LANA

• Uharteko Udaleko Musika Patronatuak klarinete eta saxofoi irakasleak behar ditu. Epea: abenduak 10.

■ IKASTAROAK

• Ekonomilarien Euskal Elkargoak antolatuta, ingurugiro kudeaketari buruzko ikastaroa. Gasteizen egingo da, abendutik martxora bitartean. Izena emateko epea: abenduak 11.

• Udalaren Enplegu Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu du, autoenplegua eta enpresa ekimenei buruzkoa.

• Enplegu Zerbitzuaren eskutik, lanerako prestakuntza ikastaroa, merkataritzako establezimenduetarako langileak trebatzeko. Epea: abenduak 17.

• Emakume Sailak antolatuta, lan orientabide ikastaroa, emakumeak lan esparrura hurbiltzeko asmoarekin antolatuta.

■ LEHIAKETAK

• “Bilbao Pop Rock” antolatu da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte bi musika modalitatean, pop-rock edo metalean. Lanak aurkezteko epea: abenduak 31.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Lanak argitaratu egiten ditugu gero”

ATB

Programazioa

OSTIRALA 3

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Gatza eta Berakatza. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.
- 13:45** Musiklasik (Errepika).



Iñaki Olaizola.

- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.
- 22:00** Gatza eta Berakatza. (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Aste honetan Edu Abasolok emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.



Edu Abasolo.

LARUNBATA 4

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA 5

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai eta Astebete.

OSTEGUNA 9

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.



Igor Ezpeleta.

Gatza eta Berakatza

Sukaldaria: Igor Ezpeleta (Elizondo jatetxea) Garagartza.

NOIZ

Osteguna 2
Ostirala 3

PLATERA

Almeja eta txapiro salteatuak.
Erroskilak.

- 13:45** Aste Bete.
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Guganda.
- 22:00** Gatza eta Berakatza. (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Aste honetan Miren Gonzalezek emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.



Miren Gonzalez.

OSTIRALA 10

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Igor Ezpeletak prestatutako plater bat.
- 13:45** Guganda. (errepika)
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.



Maider Osa.

- 22:00** Gatza eta Berakatza. (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Miren Gonzalez.

Jai egunak direla eta, datorren astelehenerik asteazkenera bitartean ATBk ez du emisiorik izango. Ostegunean itzuliko gara. Ondo pasa jai egunak!

Elkartasuna

Guganda osteguna, 21:30

Guganda. Izenak berak adierazten du, nolabait, saioaren helburua. Hitz joko baten bidez —gu + Uganda—, Hirugarren Munduarekiko elkartasuna adierazi nahi du. Eta baita lortu ere. Jende askok adierazi du izenaren polita. Arduradunak ere pozik daude izan duen oihartzunarekin.

Guganda Debagoienean lanean diharduten gobernu kanpoko bost erakundek (GKE) daramate: Arrasateko Harreman, Aretxabaletako Hiruatx, Bergarako Fisc, Eskoriatzako Atxorrotx eta Oñatiko Banoia. Orain arteko lan gehiena, hala ere, Arrasatekoek eta Aretxabaletakoek egiten dute.

Otsail aldera hasi ziren biltzen, nola edo hala programa izango zena zirriborratzen hasteko. Hainbat bilera eta eztabaidaren ondoren, uda ostean iritsi zitzairen lehen hitzordua.

Ordurako erabakita zuten saioaren egitura. Hasteko, albisteak eta GKEen ekintzen berri. Ondoren erreportaje bat. Elkarrizketak ere toki handia du saioan. Saio bakoitzean, gainera,

lan horietan dabilen talde bat aurkezten dute. Eta bukatzeko, hileroko eskaintzen diote txoko bat bailarako GKE guztien artean Eroskin kudeatzen duten Bidezko Merkataritza Dendari.

Aintzane Gardokik aurkezten du Guganda. Aintzane eskarmentu handiko profesionala da: Deian, ETBn eta ATBn ere ibilia da. Bi urtez Hitzaro eta Lengua Viva saioak aurkeztu zituen ETBn. Umea eduki eta gero, telebistara itzuli da, lasaiago orain, baina bere maila erakutsiz.

Laguntzaile onak ditu Aintzane. Izan ere, bere atzean gidoiak prestatzen eta aurrelana egiten bost lagun ditu: Inge, Inma Arabolaza, Ibon Antero (orain Nikaraguan dabilena), Beñat Arzadun eta Xabier Sarasua. Hauetaz gain, Kepa Errastik kanpoko elkarrizketak egiten ditu. Norbaitek nahi izango balu talde honekin harremanetan jarri, telefono honetara dei egin dezake: 943 79 91 25 (Beñar), lanorduetatik kanpo. Asmoak eta proposamenak ere onartzen dira.

Herri komunikabideak eta Euskal Irrati Telebista



ATBko lantaldea hauteskunde egunean.

Euskal Irrati Telebistako (EITB) zuzendaritza talde berria plangintza estrategikoa prestatzen ari da, etorkizuneari egin beharreko bidea zehazteko.

EITBko zenbait lagun hausnarketan ari dira, handik eta hemendik iritziak, proposamenak eta asmo berriak jasotzen. Dagoeneko hainbat jaso dituzte, baina talde berriak berrikuntza garrantzitsu bat sartu du, aurreko urteetako jarduerarekin alderatuz gero: plangintza estrategikoa egin aurretik, herri komunikabideen ahotsa entzun nahi du.

Horrela, abenduaren 3an, Arrasate Presseko zenbaki hau kaleratzen den egun berean, goizeko 09:30ean, Bingen Zupiria ETBko zuzendariak honako herri telebistetako arduradunak hartuko ditu bileran Iurretan: Arrasate Telebista, Oarso Telebista (Oiarzun), Zarautzko Telebista, Xalao Telebista (Elizondo), Txingudi Telebista (Irun) eta Tipi-Ttapa Telebista (Bera).

Lehenengo aldia izango

da ETB batez ere euskaraz lan egiten duten herri telebistekin biltzen dela eta, alde horretatik, ostiraleko bilera mugarririk izango da euskarazko telebisten historia laburrean.

Gai nagusia elkarlana izango da: nola aprobetxatu batzuek eta besteek egiten duten lana eta dauzkaten baliabideak, euskaraz lan egiten duten telebisten emaitza ahalik eta onena izan dadin, ahalik eta kosturik txikienarekin.

Hor ez da dena bukatzen, zorionez: egun berean, baina eguerdian, beste bilera bat egingo da, herri irratiekin. Hor ere, uste izatekoa da elkarlana izango dela hizpide.

Txalotzekoa da EITBko zuzendaritza talde berria herri komunikabideekiko erakusten ari den sentiberatasuna. Bidea ez da samurra izango, baina ez du zertan korapilatsua izan ere. Batzuek eta besteek irabazteko asko dute, hitzarmenak zentzuz eta garrantziz egiten badira.

Izango duzue honen berri gehiago.

“Gai Nagusia euskal telebisten arteko elkarlana izango da”



Aintzane Gardoki.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxe txiki eta merkea salgai Eibarren. Tel.: 943 12 71 04.

3. Errentan emateko

- Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gaeuz.

- Apartamentu bat alokatzen da Hendaiako hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita dago, berogailu, terraza eta lorategiarekin. Astebukaera edo denboraldietarako. Tel.: 943 79 86 65 eta 656 76 02 58.

- Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 51 88. 14:30etik aurrera.

- Etxebizitza alokagai Zigarrolan. Tel.: 656 72 95 93.

4. Errentan hartzeko

- Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

- Logela bat alokatuko nuke, berdin zait beste batzuekin bada. Tel.: 943 52 41 30. Xabi, gaeuz.

5. Etxeak osatzeko

- Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

- Mutil batek etxebizitza bat osatuko luke Arrasate edo inguruetan. Tel. 943 71 20 99. Jabi, lanordutan.

- Etxebizitza merke bat alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Utzi zure datuak telefono hauetan: 943 79 34 37 edo 943 79 15 95.

- Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

GARAJEAK

7. Saldu

- 57m²ko garaje itxia salgai, Errekabarrenen, Aretxabaletan. Tel.: 943 79 74 73.

- 40m²ko garajea salgai, Laubiden, Roneo ondoan. Tel.: 943 79 63 79.

- Trastelekudun garajea salgai Uribarri etorbidean. Tel.: 943 77 06 68.

- Garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

79 19 64. 20:00etatik aurrera.

- Garajea salgai Kontzeziño kalean. Tel.: 943 79 54 07.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

- Taberna salgai, ongi kokatua, eta lanarekin. Tel.: 696 36 41 25.

- Lanean diharduen taberna-erregia salgai. Tel.: 943 76 23 08. Manolo.

14. Errentan emateko

- Bost pertsonentzako lokal txikia alokagai, prezio onean. Tel.: 629 89 95 53 eta 630 20 56 70.

- San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokala alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

- Erizain kualifikatuak gaixoak zaintzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbitzu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gaeuz.

- Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrek ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

- Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

- Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

- Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

- Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Neska euskalduna eta esperientziaduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45

24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

- Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

- Ospital laguntzaile tituluduna prest pertsona nagusiak eta gaixoak zaintu eta eramateko, auto handi batean. Tel.: 609 77 01 33.

- Neska gaztea prest umeak zaintu edo zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

- Esperientziadun neska umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako prest, arratsalde. Tel.: 639 48 00 28, gaeuz. 945 27 90 43, egunez.

18. Eskaerak

- Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuak 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

- 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

- Sukaldaria behar da asteburuetarako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

- Neska edo emakumea behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

- Umeak zaintzeko pertsona bat behar da, erreleboka. Tel.: 943 79 14 39. Idoia.

- Pertsona bat behar da zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

- Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxekolanak egiteko, Aretxabaletan. Tel.: 943 77 17 57. 20:00-22:00.

- Pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Emakume bat behar dugu astean bi egunetan (goizez) etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 19 64. 20:00etatik aurrera.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ematen dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

- Ingeles filologia ikasten ari den mutil batek ingelesezko eskolak emango lituzke. Eskoriatzan zein Arrasaten. Tel.: 943 71 47 85.

• Marrazki artistikoa eta olio erako eskola partikularrak emango nituzke etxez etxe. Enkarguzko lanak ere egiten ditut. Tel.: 943 79 19 23.

21. Eskaerak

• Ekonomia zientzian lizentziaduna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• Autoa salgai Peugeot 309 GT, 1987koa. Prezio ona eta egoera onean. Tel.: 943 79 20 49.

• Ford Fiesta modela zaharra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 13 75.

• R11-TSE autoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 92 70.

• Motorra salgai, Suzuki GS 500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua maiatza arte. Estrak eta oso egoera onean. Prezioa: 400.000 pta. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• R5 Turbo Fase 2, salgai. Tel.: 943 20 83 94 edo 600 89 02 45.

• Fiat Ducato furgoneta salgai. Hiru urte ditu, 1.600 kg. ko karga ahalmena eta garaia. Tel.: 943 76 09 12.

DENETARIK

26. Saldu

• Idazmakina elektronikoa eramangarria salgai; kalitate handiko inprimatzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.

• Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

• Bulego altzariak salgai (mahaiak, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

• Ekonomia salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.

• Akuariuma salgai, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.

• Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda

orduetan deitu.

• Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabilia. Tel.: 943 77 16 54.

• Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13 81. Manuel. 20:00etatik aurrera.

• 42 zenbakiko zeharkaldirako eskiak salgai. Lowa marka; berriak daude. Deitu 943 79 84 04 edo 943 79 27 39 telefonoetara. Andoni.

• Urtebeteko Nintendo 64a salgai. Prezio onean. Tel.: 943 77 04 21.

• Opel Comborentzat, auto gainean trasteak eramateko bi barra salgai. Merke-merke. Tel.: 943 79 15 96. Unai.

27. Erosi

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

31. Galdu

• Betaurrekoak galdu ditut Arrasate, Bedoña, Urkulu inguruan. Eskertuko nuke deitzea. Tel.: 606 86 71 97. Gaeuz deitu.

32. Aurkitu

• Puntuzko txaleko marroi eta grixia aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guri-diz galdetu.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

• Reiki II, esku ezartze saioak. Mota guztietako gaixotasunak: estresa, insomnioa, buruko minak, beheraldiak. Tel.: 943 79 82 18. 20:00etatik aurrera.


HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaeuz deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.



**Zure hildakoen
eskela,
eskerrona edo
urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta
ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91



Zerra-
jeran
zeuden
igerile-
kuen

berdegunean dago atearata argazki hau. 1951. urtekoa da. Garai hartan, Zerrajerak kirolgune ugari zeukan bere langileentzat. Enpresaren eraikin nagusia hasten zen lekutik, orain Eskualde Ospitala dagoen tokirainoko gune guztia horretarako erabiltzen zen. Hantxe zeuden tenis zelaia, futbol zelaia eta igerilekuak. Bestelako tarte guztia lorategiz inguratuta zegoen.

Honela, mondragotarren artean ohitura bihurtu zen Zerrajerako igerilekuetara arratsalde pasa joatea. Ama ugari hara joaten zen bere seme-alabekin,

baita umezainak haurrekin ere, orain Santa Barbarara joaten diren moduan

Baina garai hartan emakumeek debekaturata zeukaten igerilekuan bainatzea. Gizonezkoak bakarrik baina zitezkeen. Hori horrela izan zen igerilekuak itxi baino apurtxo bat lehenagora arte, 70. hamarkada arte, hain zuzen ere.

Argazkian agertzen diren lau lagunak hauek dira, ezkerretik hasita: Consuelo Bengoa, Amaia Agirregabiria, atzeko neskatila, txapelarekin dagoena, berriz, Eva Alonso da eta azkeneko emakumea, berriz, Geuma Azkarate.

Argazkia eta berriematea:
Mari Tere Alonso.

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



OMU
ZERAMIKAK

Zeramika, arte unibertsala

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE



RENAULT Aukera

Auto hauetan serieko 4 abantaila.

- **Autoaren azterketa zorrotza.**
- **Konpromisorik gabe autoa probatzeko aukera.**
- **Norbere neurriko finantzaketa.**
- **Eta 30 hilabetera arteko bermea.**

MODELOA	URTEA	AUKERAN	PREZIOA PTA. / €
MEGANE CLASSIC 1.6 ALIZE	97	AG, LD, KE, IZ, IK	1.590.000 / 9.556,09
MEGANE 1.6 RN	96	LD, KE, IZ, IK	1.250.000 / 7.513,65
MEGANE 1.9 D RL	97	LD, IZ, IK	1.325.000 / 7.963,41
FORD GALAXY 1.9 TD	96	LD, AG, KE, etab.	2.925.000 / 17.579,6
OPEL ASTRA 1.6 GLS 4 ate	92	LD, IZ, IK	785.000 / 4.717,95
TWINGO 1.2.	96	Injekzioa, IK	750.000 / 4.507,59
SAAB 9000 CD	93	FULL EQUIPE	1.450.000 / 8.714,68
GOLF 1.9 D CL 5 ate	96	LD, IK	1.325.000 / 7.963,41
RENAULT 19 TD 4 ate	96	LD, IZ, KE, IK	1.225.000 / 7.362,4
DAEWOO NEXIA 1.5 GTX	96	LD, AG, IZ, KE	990.000 / 595

RENAULT
Aukera

Zure auto berria



RENAULT

MECA

San Andres auzoa, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 71 21 67

Amillaga, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 40 68